# ...eta kitto!

853 zkia.
2013-VI-21




EUKI
ARTEKARITZA
Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99
AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean




ERREHABILITAZIO FUNTZIONALAREN ZENTRUA
OSAKIDETZA - MUTUA - ASEGURUA ETA ABARREKIN KONTZERTATUA
CRF AMOSTEGI
* Fisioterapia
* Min-Unitatea
* Kirol medikuntza
* Osteopatia
* Perineologia
* Ama izateko prestakuntza
REHABILITACION
R.P.S. 28/07
Muzategi 2 behea (EIBAR)
Tfnoa eta Faxa. 943 20 34 46
E-maila: info@crf-amostegui.com – www.crf-amostegui.com


amplifon
Beittu
Zentro Optikua
R.P.S. 5508
J. Etxeberria, 13
943 700 230
Ondo
pasau
Sanjuanetan!
5
urte
ZURE
ENTZUMENA
ZAINTZEN
eskerrik asko
Bizitza
entzuteko

# ASTEAN ESANAK

"Gure herrialdearen antzekoa da neurriz Eslovenia: 20.000 kilometro karratu eta 2 milioi biztanle inguru. Baina han esloveniera da hegemonikoa, estatuak babestuta. Islandian antzera: han Euskal Herrian baino jende gutxiago dago, baina islandieraz irakurtzen dute."

(URTZI URRUTIKOETXEA, PEN-EKO PRESIDENTEA)

"Iaz 2011n baino 5.000 lagun gehiagok jo zuen Caritasengana Gipuzkoan: guztira 29.000 lagun artatu zituzten. Babes sare soziala asko ahuldu da. Eskerrak, 2006an krisia hasi zenetik 2012ra, ia bi milioi euroko igoerarekin gabiltzala dohaintza arruntetan"

(KONTXI ELEXPE, CARITASEKO ADMINISTRATZAILEA)

"Pasaiako itsasadarrean bizi diren korrokoi arren artean, %50i topatu dizkiete obozitoak, oraindik heldu gabe dauden obuluak. Arrainetan, inguruneko aldaketek ekar dezakete genetikoki arra beharko lukeena eme gisa garatzea: intersex fenomeno hori ibaietara doazen zenbait kutsatzaileren kaletak eragindakoa da"

(IBON CANCIO, BIOLOGOA)

## *Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera*

***JENDERIA.-*** *Jendea. "Jendera zurixa herri hartan". Batzutan jendilaje zentzua ere badu. "Hango jenderia lakorik ez iñun".*
***JENDE-MODU/JENTE-MODU.-*** *Jendilajea. Gaztelerazko **'gentuza'**. "Hango jente-modua!".*
***JENDETZA/JENTETZA.-*** *Jende asko. "Kilometruetan eta holako ospakizunetan, beti jendetzia".*
***JENTILLAJE.-*** *Jendilajea, jende-modua. "Jentia ez, jentillajia".*

# eskutitzak

## EIBARTARRON EPAIA: 197/2006, PAROT DOKTRINA ETEN

Ekainaren 8an, Tafallan eman zituen lehen urratsak **"Herritarron Epaia"** ekimen ibiltariak. Europaren aurrean Parot doktrina eta beste salbuespeneko egoerak, preso gaixoak, dispertsioa, e.a., argi eta garbi salatzea beste helbururik ez duen ekimena.

Ekimen horren euskarria liburu erraldoi bat izango da, herriz herri ibiliko dena, eta bakoitzaren esaldi, marrazki, bertso, poema e.a. jasotzen joango dena, eta hor txertatu nahi dugu eibartarron iritzia: **"Eibartarron Epaia".**

Lehen esandakoaz gain, liburu horretarako gure aportazioa argazkiak izango dira, talde edo kuadrilen argazkiak. **Doktrina eten: giza eskubideak, irtenbidea, pakea:** pankarta horrekin ateratako argazki mordoa izango da "Eibartarron Epaia".

Ezin gara, besterik gabe, Estrasburgoko Epaitegiaren erabakiaren zain egon. Beraz, animatu eta parte hartu ekimenean. Informazio gehiago Eibarko Herriraren txosnan.

*EIBARKO HERRIRA*

**ERREDAKZIOAREN OHARRA**

Datorren astean, ohiko astekaria kaleratu beharrean, azken urteotan atera dugun **BIXAMONA**ren zenbaki berri bat jasoko duzue zuen buzoietan.
Sanjuanetako argazkiekin egindako alearen ostean,
hurrengokoa uztailaren 6an kaleratuko dugu.
ONDO PASA JAIXAK!!!

...eta kitto! Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:** ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar
**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
**Astekariaren E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com / publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkartea@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Koldo Mitxelena.
**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.
**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.
**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Leire Iturbe
**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** ***8.150 ale.*** **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679
*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

kutxa gizarte ekintza

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria*

## Barixakua 21

**17.00.-** Umiendako **puzgarrixak**, Astixaren eskutik. Untzagan. 20.00ak arte.
**19.00.-** Umiendako **antzerkixa**: "Zoozoom" antzezlana, Markeliñe-ren eskutik. Untzagan.
**19.00.-** **Trikipoteua**, Untzagatik txosnetara (Errebalera).
**20.00.-** **Eibarko Balletaren** emanaldixa. Coliseo antzokixan.
**20.00.-** Txosnak zabaldu eta **elektrotxarangia** (Akoda's Bozine). Txosnetan.
**22.30.-** **Kontzertuak**: Skakeitan eta Eutsi. Txosnetan.
**23.00.-** **Kontzertua**: Willis Drumond eta Norman. Untzagan.

## Zapatua 22

**10.30.-** San Juan **pilota** txapelketaren finalak, Klub Deportibuak antolatuta. Astelena frontoian.
**10.30.-** XXX. **Extremadurako** Herrialde-Alkarraldi Jardunaldixa. Arraten. 19.30ak arte.
**11.00.-** **Simulaziño** jokuen tallarrak (modelismua, magia, eszenografixia eta mahai-jokuak), Odisea alkartiaren eskutik. Untzagan. 14.00ak arte.
**12.00.-** **Herri kirolak**. Txosnetan.
**14.00.-** Estaziño kalekuen **txupinazua**.
**14.30.-** Presuen aldeko **bazkarixa**. Txosnetan.
**16.00.-** Umiendako **jolasak**. Txosnetan.
**18.00.-** "Los extraños viajes del señor Tonet" **jolas parkia**, Tombs Creatius-en eskutik. Untzagan.
**18.00.-** **Simulaziño** jokuen tallarrak (modelismua, magia, eszenografixia eta mahai-jokuak), Odisea alkartiaren eskutik. Untzagan. 21.00ak arte.


Bongo Botrako

**18.30.-** **Txalaparta** ikastarua. Txosnetan.
**20.30.-** Sostoa Abesbatzaren **San Juan kontzertua**. San Andres elizan.
**23.00.-** **Kontzertua**: Bongo Botrako. Jarraixan Jon Cid, David NK eta Oier Aginaga Dj-xak. Untzagan.
**23.00.-** **Kontzertuak**: Jake Mate, Okerreko, Rumaniak & Txalaparta. Txosnetan.

info@gerritek.net
www.gerritek.net
SOLUZIO INFORMATIKOAK:
– Marka guztietako zerbitzu teknikoa eta salmenta
– Neurrira egindako software-aren garapena
ASUS DELL hp SAMSUNG TOSHIBA Leading Innovation
Gerritek INFORMATIKA
Txaltxa-Zelai, 4-6
Tel: 943-033892 / Faxa: 943-031521

trinmer
Telekomunikazio Instalaziorako Enpresa
-
1.305 zkia.
TB seinalea jasotzeko antena-instalazio profesionalak
Satelite bidezko TB / TB digitala
Teledistribuzioak
Konponketak eta mantenimendua
tdt trinmer
www.trinmer.com
Ego-Gain, z/g • Tel: 943 127 350

# Domeka 23
# -San Juan bezperia-

**08.00.-** **Enbolauak**, Marques de Sakako bigantxekin. Zezen plazan.
**10.30.-** **Santuari zapixa** ipiñiko detse. Ospittalian.
**11.00.-** Sanjuanetako **Zortzikua**, Usartza Txistulari Bandaren eskutik eta musikuak lagunduta. Untzagan hasitta.
**12.00.-** **Kuadrillak** Untzagan batu eta Ustekabe fanfarriarekin Urkizuraiño **kalejiran** juango dira. GASTE alkartiak antolatuta.
**13.00.-** Lizarrako **Dultzainerueri ongietorrixa** Estaziñuan. Kalejiria Untzagaraiño, udalbatzak, …eta kitto! aldizkariko eta Badihardugu alkarteko ordezkarixak, Asier Cuevas atletak eta kuadrillak lagunduta.
**13.00.-** Dultzainerueri **ongietorrixa Jaixak Herrixak Herrixandako**-rekin eta jarraixan trikipoteua.
**13.30.-** Udaletxetik, **pregoia** eta jaixeri hasieria emoteko **txupinazua**.
**13.45.-** Sanjuanetako kartel lehiaketa eta alkohol larregi edatiaren kontrako pegatina lehiaketetako **irabazlieri sarixa** emotia. Udaletxian.
**15.00.-** **Bazkarixa** eta bazkalostian **jolasak**. Txosnetan.
**17.30.-** **Kuadrillak** Untzagan batu eta Ustekabe fanfarriarekin kalejiran juango dira **zezen plazaraiño**.
**18.00.-** **Kuadrillen arteko jokuak**. Zezen plazan.
**18.00-** **Kalejiria** Africa Baj Yay taldiarekin. Untzagatik hasitta.
**18.00.-** Lizarrako **erraldoi eta buruhaundixen** kalejiria, Lizarrako dultzaineruak lagunduta. Urkizutik hasitta.
**19.00.-** **Salbea** Parrokixako abesbatzarekin. San Andres elizan.


San Juan Sua

**19.00.-** **Kale animaziñua**, "Txantxariak" ikuskizunarekin. Untzagan.
**19.00.-** **Elektrotxarangia**. Txosnetan.
**22.30.-** **San Juan sua**. Txosnetan.
**23.00.-** **Berbenia** Lisker taldiarekin. Untzagan. 04.00ak arte.
**23.00.-** **San Juan Sua** eta Ipurua **Dantza** Garaikide taldiaren emanaldixa, ...eta kitto! Euskara alkartiaren eskutik, eta **Queimada**, As Burgas Galiziako Kultur Etxiaren ardurapian. Untzagan.
**23.00.-** **Kontzertuak**: eMePebo5t eta On. Txosnetan.
**24.00.-** San Juan Kantua eta, jarraixan, **Danborradaren Alardia**. Untzagan.






# Astelehena 24
# -San Juan eguna-

**07.30.-** **Kalejiria** Lizarrako dultzaineruekin. Zezen plazara juan-etorrixa eta goiz-erestia.
**08.00.-** **Enbolauak**, Marques de Sakako bigantxekin. Zezen plazan.
**11.00.-** **San Juan sorbak** bedeinkatzeko meza berezixa. Azittaingo elizan.
**12.00.-** **Kantautako mezia** Parrokixako abesbatzarekin. San Andres parrokixan.
**12.30.-** "Elegancia Mejicana" **mariatxixaren kontzertua**. Untzagan.
**16.00.-** San Juan **tiro txapelketa** nagusixa, usakumiekin, Sociedad de Tiro al Vuelo-k antolatuta. Arraten.
**17.00.-** **Pilota jaialdixa**. Astelena frontoian.
**19.00.-** "Vive soñando" **kale antzerkixa**, Trapu Zaharra taldiaren eskutik. Untzagan.
**19.00.-** **Umien Danborradaren** urteeria, Oria eta Ustekabe fanfarriak lagunduta. Urkizutik.
**19.00.-** **Janari txapelketia**. Txosnetan.
**20.30.-** **Umien pregoia**, Umien Danborradako Danbor Nagusixak irakorritta eta Alardia. Untzagan.
**22.30.-** **Karaokia**. Danak koko-jantzitta (Gaixa: Zirkua). Txosnetan.
**23.00.-** **Soka Dantzia**, Usartza Txistulari Banda eta Kezka dantza taldiarekin. Untzagan.
**23.30.-** **Suzko erroberak**, Pirotecnia Zaragozanaren eskutik.
**23.45.-** **Berbenia** Nueva Alaska orkestrarekin. Untzagan. 03.00ak arte.


Umien Danborradia

iTURRi
ARDOAK
ETXERA ERAMATEN DUGU
Eibarko Merkatu Plaza - Rialto
Tel. 943 12 05 87

CCOO
euskadiko langile komisioak
www.ccoo-euskadi.net
Mugitu zaitez!
MURRIZKETA SOZIALEI EZ!!!
Ifar kale, 1 Tel. eta faxa. 943 20 84 35 eibar@euskadi.ccoo.es

BOLiNTXO
OKiNTEGiA
GOZOTEGiA
Eguneroko ogia
943 20 40 66 (Errebal) 943 20 36 06 (Legarre)

Mail
Apalategi, 4 - 20600 EIBAR • Tel: +34 943 70 70 50
e-maila: mail@industriasmail.com • www.industriasmail.com


Enbolauak

## Martitzena 25
## -San Juan Txiki-

**07.30.-** **Kalejiria** Lizarrako dultzaineruekin. Zezen plazara juan-etorrixa eta goiz-erestia.
**08.00.-** **Enbolauak**, Marques de Sakako bigantxekin. Zezen plazan.
**11.30.-** San Juan XX. **marmittako lehiaketia**. Untzagan.
**12.45.-** Ertzantzaren Musika Bandiaren San Juan **kontzertua**. Untzagan.
**19.00.-** **Umiendako antzerkixa**: “Txangoa”, Patxin eta Potxin taldiaren eskutik. Untzagan.
**19.00.-** **Kalejiria**, Lizarrako dultzaineruekin. Urkizutik Untzagaraiño.
**19.30.-** **Euskal Jaialdixa**: aizkolari eta harrijasotzaillien arteko konpetiziñua, ...eta kitto! Euskara alkartiak antolatuta. Untzagan.
**20.30.-** Cielito Musika Bandiari eta Usartza Txistulari Bandiari **omenaldixa**, Auzokoak alkartekuen eskutik. Jaiki alkartian.
**22.00.-** **Kontzertua** Voces y Cuerdas taldiarekin. Untzagan.
**23.00.-** **Suzko erroberak** Pirotecnia Astondoaren eskutik.
**23.15.-** **Berbenia** antziñako doiñuekin, Cielito Musika Bandiaren eskutik. Untzagan.







Gorriti

## Barixakua 28

**12.00.-** **Toka eta igel-toka** txapelketia. Karmengo parkian.
**17.00.-** Umiendako **txokolate-jana**. Karmen kaleko parkian.
**17.30.-** Umiendako **jokuak** (lapikuak apurtzen, zaku-lasterketia…). Karmen kaleko parkian.
**19.00.-** **Gorriti eta bere aberiak**. Karmen kaleko parkian.

## Zapatua 29 -San Pedro-

**12.00.-** **Mezia**, Koru Gaztearekin. Karmengo parrokixan.
**12.45.-** Toka eta igel-toka txapelketako irabazlieri **sarixak emotia**. Karmen kaleko parkian.
**13.00.-** **Piskolabisa**. Karmen kaleko parkian.
**16.00.-** Eibarko Hiria XXIX. **xake joko azkarrak**, Jose Mari Kruzetaren Oroimenez, Klub Deportibuak antolatuta. Untzagan.
**19.00.-** **Nathali eta Sebastian** bikotiaren emonaldixa. Karmen kaleko parkian.
**20.00.-** **Kaleetan Kantuz**-ekuen emanaldixa. Karmen kaleko parkian.
**21.30.-** **Dantzaldixa** Tukan taldiarekin. Karmen kaleko parkian.

## Domeka 30

**11.00.-** San Pedroko **mezia eta konjurua**, Akondia basarrixan.
**14.30.-** San Juan V. **Waterpolo** Txapelketia, Urbat I.K.E.-k antolatuta. Orbea kiroldegixan.
**16.00.-** Eibarko Hiria XXVII. **Bola-Jokuaren** Finala, Kantabriako Etxekuak antolatuta. Ipuruako bolatokixan.

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan
Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak
NTRA. SRA. DE BEGOÑA
EHORZKETA-BEILATOKIA
● Koroak ● Eskelak ○ Hilarriak ● Agiriak
BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.
ZERBITZU IRAUNKORRA: ☎ 943 201095 Faxa: 943 202564

EMAKUME ETA GIZON MODA
Valenciaga
KONFEKZIOAK
merkalitatea
☎ 943 20 22 33
Zuloagatarren, 7

San Andres Gozotegia
● tartak
● enkarguak
etxera
Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Laguntza Teknikorako Zerbitzu Ofiziala
EIBARSAT
Elektrodomestiko txikien mikrouhinen konponketa, musika kateak, sukaldeko menajea, elektrodomestiko txikien piezak, eta abar…
IFAR KALE 8
Tel. eta Faxa. 943 20 67 17
20600 EIBAR

IRAZABAL
clínica dental

**Antonio Murillo doktorea**
PERIODONTZIA, INPLANTOLOGIA, AHO-KIRURGIA

**Ainhoa Zulueta doktorea**
ODONTOLOGIA OROKORRA, PROTESIAK, ESTETIKA

**Susana Sierra doktorea**
ORTODONTZIA, OKLUSIOA

**Maitane G. Iñiguez doktorea**
ODONTOLOGIA OROKORRA, ODONTOPEDIATRIA

ORDUTEGIA
Astelehenetik ostegunera
**08.00-22.00**
Zapatuetan
**10.00-14.00**

IRAZABAL HORTZ-KLINIKA
Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com - **info@clinicairazabal.com**













## Eguzki-energia aprobetxatzeko teknologia

**Aurreko zapatuan, Europako Eguzkiaren egunaren harira**, Eibarko Injeniaritza Eskolakoek eguzki-energiaren inguruan garatutako teknologia ikastetxetik kalera atera zuten. Hezkuntza Esparruan, EHUko Eibarko kanpusean, Energia Berriztagarrien inguruko Injeniaritza Gradua eskaintzen dute orain dela urte bi. Horregatik ondo baino hobeto ezagutzen dituzte arlo horretako azken berrikuntzak eta gustora erantzun zituzten Untzagan ipinitako mahaira gerturatu zirenen galderak. Ikusgai ipini zituzten guztien artean, lapikoa eguzkiaren energiarekin epeltzeko parabolika itxurako gailuak erakarri zuen jende gehien.







Denetarik aurkitu zitekeen Estaziñoko azokan. LEIRE ITURBE

## Geltoki Market arrakastatsua

**Estaziño kalean Geltoki Market azoka egin zuten** aurreko zapatuan, Zona Diez elkarteak antolatuta. Aurreko edizioetan lez, honetan ere jende mordoa batu zen eta, bigarren eskuko azokako postuekin batera, artisautzako produktuak saltzekoak eta beste batzuk ere ipini zituzten. Eta azokaren inguruan antolatutako egitarauari jarraituta, besteak beste, musika emanaldiak, umeendako jokoak, futbolin txapelketa, hezitako txakurren erakustaldia eta beste hainbat egin zituzten. Gainera, goizean bertan azokari eskainitako hormairudia margotu zuten.

## Manifestazioa Alde Hemendik Egunean

**Guardia Zibilaren koartelak ixtea eskatzen duen Jun Hemendik** mugimenduak mobilizazioak deitu zituen ekainaren 15erako hamabost herritan, tartean Eibarren. Nazio mailako lehenengo Alde Hemendik egunean manifestazio koordinatuak egin ziren "Alde hemendik, utzi bakean Euskal Herria" goiburuari jarraituta.







PODOLOGOA
Maider Lopez Etxeberria
65 Kolegiatu zbkia.
Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

Sanjuan zoriontsuak
Baimendutako Harategia
Gure Kalitatea
Giokela
Carnicería Autorizada
Urkizu, 18 —— 943 120194
MUGIKA

Mahatsondo

ARDANDEGIA
ETXERA ERAMATEN DUGU
Isasi, 19
686 154 867 / 943 033 800
www.mahatsondo.com

Juan Gisasola, 12-14
Tfnoak. 943 20 39 02 / 943 70 13 95
BENICOBA
Etxeko tresnak
Sukaldeko altzariak
BEHAR DUZUNA LORTZEN LAGUNTZEN DIZUGU
Zorionak!



"Munduko Musikak" izenburuari jarraitu zion ekitaldiak. LEIRE ITURBE

## Piano ikasleen kontzertua

**Domeka eguerdian, "Munduko Musikak" izenburuari** jarraituta, kontzertua eman zuten Isabel Laspiurren piano ikasleek Coliseo antzokian. Pianojole gazteek bikain jardun zuten ikasturtean ikasitakoak antzokian batutako publikoaren aurrean erakusten.

## Dantza garaikidea Coliseoan

**Aurreko barixakuan Ipurua Dantza Garaikide taldeak ikasturte amaierako** emanaldia eskaini zuen Coliseoan. Nerea Lodosak zuzendutako dantzari gazteek kurtsoan zehar landutakoak erakutsi zituzten taula gainean, taldeka hiru egunetan eskainitako erakustaldietan.







*Ikusgarri jardun zuten Untzagan eskainitako lanetan.* LEIRE ITURBE

## Ipuruako gimnasten erakustaldia

**Ipurua Gimnasia Erritmikako neskek koreografia ezberdinak** aurkeztu zituzten Untzagan aurreko asteburuan guraso eta bestela, ikuskizunak erakarrita batu ziren ikusleen aurrean. Gimnasta gazteek erakustaldian egindako ariketek aho zabalik laga zuten jendea berriz ere.









# Ander Sukia eta Unai Avila karabinarekin txapeldun

**Aurreko zapatuan Sanjuanetako XXII. Tiro Txapelketa** haizezko karabinekin jokatu zen Hezkuntza Esparruan, Dinbi Danba elkarteak antolatuta. Denera 22 bat lagunek hartu zuen parte tiraldian eta, bakoitzak lortutako puntuak zenbatu eta gero, irabazleei sariak banatu zizkieten: seniorretan Ander Sukia izan zen txapelduna eta umeen artean, berriz, Unai Avila. Jubenilen mailan ez zuen inork jardun.



Irabazleen taldea jasotako sariekin. LEIRE ITURBE

# Mustrako txakurrak Arraten

**Aurreko asteburuan, Diana Ehiza eta Arrantza Elkartekoek** antolatuta, mustrako txakurren probintziako txapelketa jokatu zen Arrateko zelaian. Parte hartzera joandakoek ederto eman zuten zapatu goiza eta amaieran onenei garaikurrak banatu zizkieten.

# Txikien duatloia

**Eibar Triatloi Taldeak antolatuta, Eibarko IV. txikien duatloia** jokatu zen domekan. Untzagan hasi eta inguruan prestatuta zegoen zirkuitoari jarraituta, antxitxiketan eta bizikleta gainean euren onena eman zuten atleta gazteek.



# Arku-tiroa praktikatzen

**Asteburuan, Urko arkularien klubak sanjuanetarako antolatutako** saioan, arku-tiroa praktikatzeko aukera izan zuten zapatu arratsaldean Txaltxa Zelaiko parkera gerturatu zirenek. Arkulari klubekoek arkuarekin praktikatu nahi izan zutenei azalpenak eman zizkieten, horiek entzun eta gero han ipini zituzten dianetara geziak botatzeko.















# Ondo pasa Sanjuanetan!!

ondo pasau




sanjuanetan

**PINTXO BEREZIAK**
goizeko 10.00etatik
zabalik
**URKIZU, 11**

chalcha
RESTAURANTE
JATETXEA
943 20 11 26
www.restaurantechalcha.com

ZONA WIFI
DISCO
LUR PE
music
BAR

SAN JUANAK
2013 KARRIKAN
(BISTA EDER 2 EIBAR)
* Afari menu berezia
* KarrikaMatinalak
(goizeko 8:00tik aurrera)
E 22 Rock Matinala
E 23 Benso & Aitor MU
E 24 Boli The Bigger & Txapeldunk



ONDOPASAU

"Tiro Pitxon Jatetxea" ARRATE



Terraza ederra bista paregabeekin

Eguneko menua
Menu bereziak
Karta
...
943 20 88 59

deportiboko taberna
T. Etxebarria, 16
943 20 70 44
AFARIAK
ASTEBURUETAN
Bazkariak eta afariak
ENKARGUZ

**Zubi-Gain** URKIZUKO DORREETAN

**Ego-Gain** ANBULATEGIAREN AURREAN






Urkizu, 11-behea Tfnoa. 943-254060

J. Etxeberria, 2 Tfnoa. 943-207165

*Ogitarteko, kazuelita, tapa eta pintxo berezietan*
ESPEZIALIZATUAK

*Sanjuanetako kartel lehiaketara aurkeztutako 27 lanen artean Olatz Oñederra elgoibartarraren "Danborraren kolorea" lanari eman diote saria. Umeen mailan, berriz, Iker Arginzonizen "Supean" (11-14 urte) eta Salma Losadaren "Dultzaineroak non-nahi" (10 urte arte) saritu ditu epaimahaiak. Bestalde, alkohol larregi edatearen kontrako pegatina irabazlea Xabier Arrietaren "Ez da herri kirola, beraz kontrola!" izan da.*



*"Dultzaineroak non-nahi" Salma Losadaren lanak irabazi zuen 10 urtera artekoen mailan.*

# OLATZ OÑEDERRA,
## SANJUANETAKO KARTEL IRABAZLEA

# "Suaren eta jaiaren koloreak adierazi nahi izan ditut"

***- Nondik nora jo zenuen saritutako kartela sortzeko orduan?***

Batez ere kartel koloretsua izatea nahi nuen, moduren batean suaren, jaiaren koloreak adieraztea. Ideia horretatik abiatuta sortu ziren kolorez betetako puntutxoak, suak berak kolore bat baino gehiago izaten duelako.

***- Zuk diseinuan diharduzu beharrean. Horrelako lehiaketetan parte hartzeko ohitura daukazu?***

Normalean ez dut parte hartzen, Elgoibarren Original komunikazio grafikoan (www.original-cg.com) egiten dut lan eta lehiaketetako giroak ez nau bereziki erakartzen, baina noizean behin lanen bat aurkezten dut. Kartel hau lehiaketara aurkeztera azken orduan animatu nintzen eta ez nuen irabazterik espero, poz handia hartu nuen irabazlea nintzela esan zidatenean.

***- Kartela herri osoan ipinita ikustean nolako sentsazioa izan duzu?***

Ikusi, asko ikusten dela pentsatzen dut. Toki askotan ipinita ikusi dut eta ETB-n ere agertu da, egia esateko ilusioa egin dit.

***- San Juan jaietara etortzeko asmorik daukazu?***

Ama eta mutila eibartarrak dira eta, beraz, sanjuanak ezagutzen ditut. Gaztetan gauez ibilita nago eta orain, berriz, egunez ibiltzen gara gehiago, aurten San Juan bezpera asteburuan izanda domekan joateko asmoa daukagu, astelehenean lanera joan beharko dut-eta.




*"Danborraren kolorea" du izenburua jaiak iragartzeko saria irabazi duen Olatz Oñederrak egindako kartelak.*




*Xabier Arrietaren pegatina.*




*Iker Arginzonizen "Supean", 11tik 14 urtera artekoen irabazlea.*





%70erainoko deskontuak
Ekainaren 30ean ITXIKO DUGU
kareaga
– Bidebarrieta, 10 –
Tlf. 943 20 80 45

bizilekuetan adituak
Diproca
Isasi, 17 (Eibar)
eibar@diproca.com
Tfnoa. 943 10 83 00 Faxa. 943 10 83 02
6 ate
2 bidriera
4 itsu
Marko berria
Matelux kristalak
Kromozko krispetak
Eskulana
2.650 €
(BEZ BARNE)




ATEAK – ARMAIRUAK – LEIHOAK – ESKAILERAK – ZORUAK – KANPO AROZTEGIA

*San Juan bezperan, urteroko hitzorduari kale egin barik, domekan 13.00etan aillegauko dira Lizarrako dultzaineruak Estaziñora. Kaliaren alde bixetan, barriz, urteroko moduan jendia barra-barra pillatuko da, dultzainaren erritmora San Juan jaixeri hasiera "ofiziala" emotera etorrittako laguneri ongietorri berua egitteko gertu.*

# Kalejiretan dultzainarekin gidari



*Interes gehixen pizten daben ekitaldixetakua da.* Leire Iturbe

**ESTAZIÑO KALIAN HASIKO DABEN IBILBIDIAN UDALBATZA, GAZTIEN KUADRILLAK ETA AURTENGO JAIXETAKO OMENDUAK LAGUN IZANGO DITTUE:** bestiak beste Europako 100 kilometroko lasterketan txapelduna dan Asier Cuevas ultramaratoilarixa, aurten 10 urte betetzen dittuan "Euskal Herriko Ahotsak" Badihardugu euskara alkartiaren proiektua eta abenduan 25 urte beteko dittuan esku artian dakazuen hau, …eta kitto! aldizkarixa.



*Estaziño kaletik urtengo dau dultzaiñeruen kalejiriak.* Leire Iturbe

Udaletxian amaittuko dan kalejiria eibartarren txalo zaparrada artian egingo dabe eta balkoian, Untzaga plazan txupinazuaren zaiñ egongo diran guztien parian dultzaina jo eta gero, omendutakueri tokixa egingo detse, txupinazuaren aurretik berba egin deixen. Pregoilarixak euren jarduna amaittuta, orduan bai, txupiñaren metxia ixotu eta horrek eztanda egittiarekin batera, salto eta txanpan artian ekingo jakue jaixetako egun haundixeri.

Edozelan be, dultzaineruak ekitaldi gehixagotan parte hartzen ikusteko aukeria izango dogu: bestiak beste astelehen eta martitzenian 07.30xetan zezen plazaraiño kalejiran juango dira, enbolauetara doiazenak bidian gidatzen eta San Juan Txiki egunian arratsaldeko 19.00etan Urkizutik Untzagaraiño egingo dan kalejiran atzera dultzainaren doiñuarekin bidia zabaltzen juango dira.

16 urte betetzen ditugu! Gurean bai jaia!!




ESKERRIK ASKO ETA... ONDO PASA SANJUANAK!

Zentral Optika

EGO GAIN, 2
Tel/Fax: 943 70 14 08



Jarraituiguzu facebook-en eta lortu DOAN zure eguzkitako betaurrekoak

# Suak Itzio ingurutik botako dira estreinekoz



**AURREKO HILEAN HAINBAT PROBA EGIN ZITUZTEN, LEGEAK AGINTZEN DUENA BETETA SUZKO ERROBERAK BOTATZEKO** tokirik egokiena zein zen ikusteko. Izan ere, 2010. urtean indarrean sartutako legeak agintzen dituenetara egokitzeko epea iaz amaitu zen eta, beraz, aurten derrigorrez bete behar da segurtasuna bermatzeko araudia. Besteak beste, legeari jarraituta eta istripuak saihesteko, suak botatzen den tokitik etxeetara gutxienez 60 metroko segurtasun-perimetroa zaindu behar da eta horrek suak herri barruan botatzeko aukera gutxi eskaintzen du gure herriaren kasuan. Gauzak horrela, eta helburua suak herri barrutik ahalik eta ondoen ikustea izanik, Itzio inguruan egin zituzten probak udaleko ordezkariek eta piroteknikoek eta suak lau puntu ezberdinetatik jaurti eta gero, lau horien artean helburua egokien betetzen duena aukeratu dute aurtengo sanjuanetan egingo diren ikuskizun bietarako. Probetan ikusi zutenez, epaitegi ingurutik eta Txaltxa Zelaitik suak ederto ikusten ziren, baina ez zen gauza bera gertatzen Untzagako harmailetatik edo plazatik begiratuz gero. Horregatik, eta aipatutako toki bietan jende mordoa suak ikusteko batzen dela kontuan hartuta, hortik ere suak ondo ikusi ahal izateko suen kalibrea handitzea erabaki dute, horrela suak jaurtitzean erradioa handitu eta toki guztietatik ondo ikustea ahalbidetzeko. Emaitza ikusteko, baina, martitzen gauera arte itxaron beharko dugu, lehen ikuskizun piroteknikoa orduan eskainiko dute-eta. Eta horren arabera hurrengo gauerako tokia hobeto aukeratzea errazagoa egingo zaigu.



*Suak orain arteko tokietatik ondo ikusteko kalibrea handitu dute.*

CORREDURIA COSTAMAR

| | | |
|---|---|---|
| AUTOAK | ISTRIPUAK | KARNET KENTZEA |
| ETXEA | DENDA | ASISTENTZIA BIDAIAN |
| EHIZA | ENPRESA | E.P.S.V. PENTSIOAK |
| BIZITZA | AUTONOMOA | INBERTSIOAK |
| OSASUNA | AURREZPENA | BABES JURIDIKOA |
| HILETAK | ERANTZ. ZIBILA | KREDITUA ETA BERMEA |

Urkizu Pasealekua, 11 - Solairuartea - 20600 - EIBAR
Tel: 943-120437 / Faxa: 943-127180 DFGV zkia: MS-224
www.correduriacostamar.com costamar@correduriacostamar.com

astixa
Zezenbide 7, Eibar 20600 Gipuzkoa tlf.943206231

KIÑU 2000
Eustal FERR
BURDINDEGIA
San Juan, 17-19 Telf. 943 200 492 - 943 700 926

ELEKTRIZITATEA
urki s.a.
AUTOEN MEKANIKA
INDUSTRIA
INSTALAZIOAK
BOBINATUAK
TRANSFORMADOREAK
Arragueta zeharbidea, 1
Tel. 943 12 05 95 / 72
Faxa. 943 20 38 53
Transfab@euskalnet.net

# Ondo pasa Sanjuanetan!!

SOKOA
EIBAR - ONDARRU
birjiñape, 1 behea
tel. 943 20 71 00
SOKOA

Mesón Aguiñaspi
Zorionak!
Urkizu pasealekua, 22
Telf. 943 20 06 08

TXOKO
Giro alaia Sanjuanetan!
UNTZAGA PLAZA, 10
20600 EIBAR

BAiSi
CAFETERIA
Urkizu, 11

943 20 67 65
Bista Eder, 11
Oishi su beroa jatetxea
Eguneko menuak
Bokatak
Razioak
Menu bereziak




OISHI
PINTXO BEREZIAK
CATERING
943 20 29 55
627 41 78 33
Untzaga plaza

hirurok

MAiXA TABERNA
Calbeton, 8
943 031271
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Kazuelitak
- Pizzak

JATETXEA
Gurbil
URTEBETETZE JAIAK / GOSARIAK / EGUNEKO MENUA
HITZARTUTAKO MENUAK / PLATER KONBINATUAK
KARTA / HANBURGESAK / OTARTEKOAK / ...
ORDUTEGIA: astelehenetik ostiralera (07.00-16.00 eta 19.00-22.00)
larunbatetan (08.00-16.00 eta 18.00-itxi arte) igandetan (08.00-16.00)
Isasi, 1 Tel. 943 20 11 52

UNBE TABERNA
× Pintxoak
× Bokatak
× Bazkariak
Balle Otaola 33 ☎: 943 70 00 81
EGUNEROKO MENUA

# DANBORRADA, aurten telebistan ere

*Lehendik ere jakina zen hainbat tokitan egiten diren danborraden artean Eibarkoa garrantzitsuenen artean zegoela. Baina aurten, aurreko urteekin konparatuz gero, are oihartzun handiagoa izango du, zalantza barik. Izan ere, Euskal Telebistak zuzenean emango du eta, horri esker, Eibartik kanpora ere danborradarekin gozatzeko aukera izango du jendeak.*

**EKAINAREN 24-A HASTEAREKIN BATERA, GAUERDIAN EKINGO DIOTE DANBORRA JOTZEARI** helduen danborradakoek. Jose Miguel Laskurain Danbor Nagusiak hasiera emango dio udaletxeko plazan eta, alkateari zuzendari-makila laga eta honek tarte batean danborrada zuzendu eta gero, kalejiran irtengo dira konpainia guztiak, zaldi gaineko banderadun eta guzti. Bertatik abiatuta, ordu bi eta erdiz herriko kaleetan zehar 15 bat pieza joko dituzte azken asteotan asteroko entseguetan praktikatzen jardun duten 200 bat lagunek. Aurten, iaz bere sorreraren mendeurrena ospatu zuten Eibarko Kasinokoak joango dira danborradarekin batera kalejiran aterako duten karrozan.

Umeen txanda San Juan egunarekin batera ailegatuko da. Arratsaldeko 19.00etan hasiko den ekitaldian herriko ikastetxe guztietako ikasleek hartzen dute parte urtero, 400 bat umek denera. Urkizutik Untzagara bitartean egiten duten kalejiran Oria eta Ustekabe fanfarreek laguntzen diete. Eta behin Untzagara ailegatzean, publikoz beteta egon ohi diren harmailetara begira ilarak osatuta, danborradaren alardea eskainiko dute. Nagusien danborradan bezala, honetan ere Danbor Nagusiak hartuko du parte, besteak beste Untzagan pregoia irakurrita. Baina, helduen danborradan ez bezala, honetan pertsonaiari bizia emateko umea urtetik urtera aldatzen joaten da, ikastetxeen artean txandakatzen joaten direlako.



Helduen danborrada San Juan bezperan egiten da. LEIRE ITURBE



San Juan egunean umeen danborrada izaten da. LEIRE ITURBE

GAUR
ELEKTRIZITATEA
Instalazio eta konponketa elektrikoak
Atezain automatikoak eta bideo-atezainak
Zuloagatarren 9, behea 20600 EIBAR
Telefonoa 943 20 62 40 Faxa 943 05 69 23

CATALANA OCCIDENTE Aseguruak
Emilio de los Toyos - C046815351532K Aseguru Agentea
– ERANTZUKIZUN ZIBILA
– AUTOAK
– BIZITZA ETA JUBILAZIOA
– OSASUN ASEGURUA
– ISTRIPU BANAKAKO ETA KOLEKTIBOAK
– ARRISKU ANITZETARAKO: Familia-Etxebizitza, Dendak, Bulegoak, Eraikinak, Jabeen erkidegoak, Enpresa Txikiak eta Ertainak, Pymeak, Tailerrak.
emilio.toyos@catalanaoccidente.com
Eibarko Txikito, 8 -behea Tel. 943 200 908

Oinetakoak
Tribeka
Zuloagatarren, 7
Tfnoa. 943 20 62 24

josi ta josi
konponketak eta jostun lanak
Zezenbide, 2
Telf. 943 254 640





# Itxaropenari kantatzen su aurretik

*San Juan Suaren inguruko ekitaldia, ohikoa denez, San Juan bezperan egingo da, 23.00etan hasita. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutakoak Badihardugu, Asier Cuevas eta aldizkari hau omenduko ditu aurten, euretako ordezkariei eskainiz sua pizteko aukera. Ekitaldiaren amaieran, As Burgas Galiziako Kultur Etxekoek Queimada prestatuko dute. Su magikoak gau magikoa dakar, barnean tradizioaren garrak, urteetan gordetako bizipenak batuz.*

**NEREA LODOSAK ZUZENTZEN DUEN IPURUAKO DANTZA TALDEAK ITXAROPENAREN ALDEKO** keinua egingo du aurten. Bere hitzetan, *“V de Vendettan inspiratu gara aurtengoa prestatzeko. Bakarlari batek maskara horrekin dantzatuko du Mikel Laboaren txoria-txori abesti ospetsua entzuten den bitartean. Batek bakarrik gaur egungo egoera kaskarrari ezin diola aurre egin eta, Kalakaren eta hip-hop musikaz lagunduta, antzerako maskarekin batuko zaizkio dantzariz osatutako taldea, guztien artean batek bakarrik ezin zuena lortzeko bidean”.*



Argiak eta beroak hartuko dute Untzaga beste behin.

Ehunetik gora dantzari izango dira *“15 bat minutuko ikuskizunean”*. Berrehunetik gertu ere izan zitezkeela dio Lodosak, *“baina, esaterako, 35 Frantzian egongo dira egun horietan”.* Aurreko urteetan parte hartu dutenekin batera, lehenengo aldiz jardungo dute beste batzuk. Nereak ez du ahaztu nahi prestaketak egiteko jasotako laguntza: *“Batez ere, Marta Prolen eta Jone Barandikaren jarduna aipatuko nuke, eurak barik ezingo genituzke-eta halakoak aurrera atera”.* Vendettako protagonistak, beraz, ez gaitu indiferente lagako 23ko gauean.







# Herriko elkarteen ekarpen garrantzitsua

**AUZOKOAK ELKARTEEN BATZORDEA, KLUB DEPORTIBOA, KEZKA DANTZA TALDEA, CASA DE CANTABRIA,** As Burgas Galiziako Etxea, Dinbi Danba, Sociedad de Tiro al Vuelo, Eibarko Txori Lagunak, Sostoa Abesbatza, Goruntz Abesbatza, Parrokiako Korua, Cielito Musika Banda, Usartza Txistulari Banda, Amañako Jai Batzordea, ...eta kitto! Euskara Elkartea, Badihardugu Euskara Elkartea, Beheko Tokia, Untzaga Jubilatuen Etxea, DYA, Ipurua Gimnasia Erritmika Taldea, Eibarko Txirrindulari Elkartea, Danborrada antolatzeko batzordea, Jaiki elkartea, Urko Arkulari Kirol Elkartea, Eibar Rugby taldea, Urbat IKE, Jump In Elkartea, Eibar Triatloi Taldea, Lacasiun Eibarko emakume latinoamerikarren elkartea, Biraka Dantza, Eibarko Balleta, Eibarko Dantza Garaikide Taldea, Odisea elkartea, Eibarko Pedrucho zezenzaleen elkartea, Gaste elkartea, Eibarko koadrilak…herriko elkarteen lana bereziki azpimarratzen dute urtero San Juan jaien aurkezpenean, egitaraua osatzeko orduan duten garrantziarengatik.



*Ustekabe taldekoak Donostiara egindako irteera batean.*



*Sostoa Musika Eskolakoak San Andres parrokian abesten.*

Ustekabe fanfarreak, adibidez, emanaldi bi eskainiko ditu jaietan. Lehenengoa domekan, San Juan bezperan izango da: 12.00etan ekingo diote emanaldiari Untzagan eta koadrilekin batera Urkizura jeitsiko dira, 13.00etan dultzaineroei ongietorria eman eta Untzagara itzultzeko. Jarraian, erdialdeko kaleetan poteoa alaitzen ibiliko dira, bazkaltzeko ordura arte. Iaz Mauxitxak jardun zuen egun osoan, baina aurten lehenengoz goizeko zatia eibartarrek egingo dute. Eta San Juan egunean, 19.00etatik 21.00etara bitartean umeen danborradarekin bat egingo dute, J.B. Gisasola Musika Eskolako 10 ikaslek lagunduta.

### Banda biei omenaldia

Bekuak, Denon Sahatsa, Dorrepe, Edozer, Jaiki, Erdi Bana eta Urkusu-Gain elkarteek osatzen duten Auzokoak elkarteak, bestalde, urtero lez omenaldia egingo die Cielito Musika Bandari eta Usartza txistulari taldeari, San Juan Txiki egunean Jaiki elkartean afaltzera gonbidatuta. Afaria amaitu eta jarraian, talde biak elkarrekin joango dira Untzagaraino kalejiran, jaiak agurtzeko kontzertua emateko.

publi resa
- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...
PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK
Armagin 3 - behea
☎ eta faxa: 943 70 14 97 Publi.resa@euskalnet.net

TXUTXUFLETAS
TXUTXUFLETAS EIBAR
PRENTSA
ALDIZKARIAK
GOZOKIAK
FRUITU SIKUAK
OGI BEROA
T. Etxebarria, 24 eta T. Etxebarria, 16

etxedreams COLCHONERIAS
Atsedenaz dihardugu?
Etxedreams koltxoi-dendak: 25 urtetik gora guztion atsedenari eta ongizateari eskainiak
Telf. 943-177041
Zubiaurre, 32 ERMUA | Mikeldi, 4 DURANGO | Isasi, 23 EIBAR

Super BM
Super BM IFA taldea, zure eguneroko erosketa
GRUPO IFA
Julian Etxeberria, 14-16 Tel. 943 70 15 90

# AUTOEN



30. zkia.

...eta kitto! aldizkariaren gehigarria

# gehigarria

# Auto zaharra kentzeko, zer?



***Kotxe berria erostearekin batera, zaharra auto salmenta puntuan lagatzeko ohitura handia dago, are gehiago "PIVE" plana dela-eta.*** *Guk auto berria erosten dugu, zaharra erosi dugun salmenta puntuan bertan laga, eurek egiten digute paper eta inprimakien lana eta buruhausterik ez dugu. Baina, hainbat arrazoi medio, batek baino gehiagok berak kendu du autoa eta ez daki zer egin behar den. Badira egin beharreko haibat gauza, baina horretarako laguntasuna izango dugu, profesional asko baitago horrelakoetan prestatuta. Gaur egun, gainera, bidea erraza da: doakoa eta ekologikoa ere bada.*

*Orain urte batzuk erosi genuen azkeneko kotxea, eta gustora ibili gara berarekin; baina, pena ematen badigu ere, gure autoak egin du egin beharreko guztia. Errepidetik kendu nahi dugu, baina kontuan izan behar ditugu betebeharrak, bereziki autoak hondakin kutsatzaileak sortzen dituela. Guzti hori tratatzeko, gune baimenduak ditu Trafiko Zuzendaritzak.*

*Tratatzeko Gune Baimenduetara joatea da garrantzitsuena eta han ingurumen legeei jarraituko diote. Guri dagokigunez, autoak hamabost urte baino gehiago izanez gero ez du inongo kostorik izango: doakoa izango da. Horrelako gunerik inguruan dugun jakiteko,* ***trafico.es*** *webgunean begiratzeko aukera dugu.*

*Nortasun Agiria aurkeztu beharko dugu, zirkulazio baimena eta Ibilgailuaren Azterketa Teknikoaren Txartela. Udal zirkulazio zergaren ordainketa ziurtagiria ere aurkeztu beharko dugu, beti ere autoak hamabost urte baino gutxiago baditu. Inprimaki bat beteko dugu gunean bertan, autoa gure izenean gehiago ez agertzeko. Hori egin eta gero, guneak berak izango du autoaren ardura osoa. Eta horrela esango diogu agur azken urteetan leku batetik bestera eraman gaituen autoari.*




GASOLEOEN BANAKETA

estación de servicio kantoi eibar

20.000 L.

2.000 L.

ZERBITZU ONENAREN SARIA

Otaola etorbidea, 13 -Bis

Tfnoa. 943 20 73 74 / 94 671 02 77

GAUEZ ZERBITZU AUTOMATIKOA

---

AUTO KONPONKETAK

**AURRERA**

- Mekanika - Elektrizitatea
- ITVrako errebisioak
- Frenoak - Amortiguazioa
- Mantenimendua - Erroberak

Urtzaile, z/g
Telefono eta Faxa: 943 20 80 65

20600 EIBAR
(Gipuzkoa)

---

**J.A. LASKURAIN**

ASEGURU ARTEKARIA S.L. D.G.S. 1.408 - J

*BIDAIA ASEGURUAK*

R.A.C.V.N.-ren ordezkaritza

RAC VASCO NAVARRO

Urtzaile 1 (alboko sarrera)
Telf. 943 70 28 87 / 943 20 37 13
943 12 05 30 / Faxa. 943 70 28 87

ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK

---

www.AUTOBOX.BIZ
ALQUILER DE BOXES

MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATEA
ERREMINTAK ETA AHOLKULARITZA DOAN
OSAGAI, ORDEZKO ETA NEUMATIKOEN SALMENTA
ORDUTEGIA: ASTELEHENETIK OSTIRALERA 09.30-20.30 LARUNBATETAN 09.30-13.30

Ibur Erreka, 38 - Olarreaga Auzoa, 38
*(Eibar eta Ermuaren arteko probintzia mugan)*
Tfnoa. 943 20 72 44 Mobila: 651 85 50 60

www.autobox.biz
autobox@autobox.biz

---

LOURDES URZURIAGA
*987 ZENBAKIDUN DELEGATUA*

MAPFRE
ASEGURUAK

AUTO ASEGURUAK
JUBILAZIO PLANAK
INBERTSIO FONDOAK
ETXEBIZITZA ASEGURUAK

Sostoa, 1 - behea (EIBAR) lurzuri@mapfre.com
☎ 943 820 449 Faxa: 943 820 609 Mobila: 607 401 929

---

*Torrekua, 2*
*20600 EIBAR*

*Tel. eta Faxa*
*943 20 62 48*
*Tel. 943 20 70 31*
*eseibar@facilnet.es*

ESTACION DE SERVICIO EIBAR, S.A.

AVIA

FURGONETEN ETA AUTOMOBILEN GARBIKETA
AUTOMATIKOA ETA PRESIOAREKIN
LUBRIFIKATZAILEAK
GASOLEOEN ZUZENEKO BANAKETA

**24 ordutan zabalik**

**www.estaciondeservicioeibar.com**

---

www.renault.es / 902 333 500




RENAULT QUALITY MADE

WORLD CHAMPION ENGINE

Renault Captur gama: kontsumo mistoa (l/100 km) 3,7tik 5,4raino. CO2 isuria (g/km) 96tik 125eraino.

DRIVE THE CHANGE

RENAULT

**GAURSA** Renault, Dacia, Nissan Banatzaile Ofiziala
OTAOLA ETORBIDEA, 22. TEL. 943 82 09 74. EIBAR
LETXUNBORRO ETORBIDEA, 89. TEL. 943 639 122. IRUN
www.gaursamotor.com - www.gaursaautoak.com

# Erroberak zaindu: segurtasuna dago jokoan

***Autoaren mantenuan puntu garrantzitsua da erroberena, gehiago gure segurtasunerako zenbaterainoko pisua duen kontuan izanda.*** *Erroberak aldatzeko orduan zalantza asko sortzen da aukeratzerako orduan. Profesionalen esku jartzeaz gain, euren gomendioak kontuan izatea azpimarratu nahi genuke lerro hauen bitartez. Ez ahaztu profesional handiak ditugula gurean, esperientzia handikoak eta gu laguntzeko prest egongo direnak.*

*Marka eta kalitate asko daude gaur egun merkatuan. Azken urteetan asko entzuten dugu errobera gogorrak eta errobera leunak daudela. Itsaspenean dago alde nabarmenena: itsaspen handiagoa dute errobera leunek, hau da, gehiago itsasten dira errepidera. Baina errazago hondatzen dira, gutxiago irauten dute.*

*Dugun autoaren arabera, erabiltzen dugun errepidearen arabera, errobera itsasgarriagoak beharko ditugu. Berriro ere azpimarratuko dugu profesionalek berehala esango digutela zein den aukera egokiena gure beharren arabera.*

*Erroberak aukeratzerako orduan, garantia ere kontuan izan behar dugu. Saltzen dizkiguten lekuaren arabera, markaren arabera, bereziki, garantia bat edo beste izango dute. Errobera egiten duten urtetik hasita, bost urteko garantia izaten dute; horregatik da interesgarria errobera hori noiz egin zen jakitea. Profesionalak esango digu noizkoak diren erroberak eta noiz aldatu beharko ditugun.*

*Baina, garantia ona izateaz gain, gure gidatzeko ohiturek, leku umelean edo sikuan bizi garen eta amortiguazioak pisu handia du. Autoaren mantenua zaintzea oso garrantzitsua da, beti. Erroberak zaintzea, ezinbestekoa. Uda gainean dugu, gutako askok kilometro asko egingo ditu datozen hilabeteetan: ez ahaztu autoari behar bezalako mantenua egiteaz. Olioa, ura, amortiguazioa, balaztak zaintzea, eta erroberak, noski. Kontuan izan gure segurtasuna dagoela jokoan.*




DESGUACEDEBA

Itxaspe auzoa, 35 - 2. solairua (peaje ondoan)
PK 86 zkia. 20820 **DEBA-ITZIAR**
**Tfnoa. 943 19 94 92**
Faxa. 943 19 92 10
**desguacedeba@desguacedeba.com**





* **Baja eta auto jasotzea doan**
* Neumatikoak 15 €tik aurrera
* Bateriak
* ERREZIKLAPEN ZENTRO BERMATUA 126-04

NATURA ZAINTZEA GURE LANA DA






STOP&START e-HDi MOTORRAK | ABIADURA ERREGULADORE AKTIBOA | UKIPEN TABLET INTEGRATUA | SMARTBEAM FARO ADIMENDUAK | HAIZETAKO PANORAMIKOA | PARK ASSIST

## **CITROEN C4 PICASSO** BERRIA. TECHNOSPACE-A

Ez da espazio kontua bakarrik. Citroën C4 Picasso berria etorkizun posible bateko adierazlea da: Haizetako Panoramikoa, Stop&Start e-HDi motorrak, Park Assist, Ukipen-Tablet Integratua, Abiadura Erreguladore Aktiboa, Nahi gabeko Bide Aldaketaren Alerta, Larritasun Dei Sistema (eTouch), Trakzio Kontrol Adimendua, eta bizitzea izango nahi dituzun historia guztietarako espazioa. Citroën C4 Picasso berria da, mundu osoa hartzen duena.

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

CITROËN

ZAER MOTOR S.A.

Apalategi, 1 (943 707 033) -EIBAR-
Padureta Industrialdea, 1 (94 681 11 08) -IURRETA-

# Autoa erosteko kontuan hartzekoak

***Inbertsioa da autoa erostea; aukeraketa ona egin behar da.*** *Eduki dezagun kontuan gauza bat: etxea erosteaz gain, familia gehienetan egiten den erosketarik handiena izaten da. Gainera, gure bizitzan, seguru asko, behin baino gehiagotan egingo duguna. Hori guztia kontuan izanda, argi dago ondo pentsatu beharra dugula.*

*Lehenengo galdera nagusia kotxea behar dugun edo ez dugun behar izango da. Hilean 1.000 km baino gutxiago egin behar baditugu, ez dugula behar esaten dute adituek. Motorra izan daiteke aukera horrelako egoeretan.*



*Beharra gero eta handiagoa dela argi dago. Lan kontuak, oporrak, astebururak… autoa behar izatea nahiko erraza da gaurko gizartean. Baina, nahiz eta behar, zer nolakoa izan behar da?*

*Aurrekontuarekin ez badugu arazorik errazagoa izango da, jakina, baina aukera batzuk egin beharko ditugu. Autoa gero eta handiagoa, dituen gastuak (erregaia, gurpilak, mantenua, aseguruak…) handitu egiten zaizkigu. Etxean lagun bi bagaude, zertarako erosi zazpi lagunendako automobila? Gainera, garajean edo kalean aparkatzeko, errazagoa txikiagoa denean.*

*Gasolina edo diesela? Galdera ohikoa, autoaren bizia zenbat luzatzen saiatuko garen izan beharko dugu kontuan. Gero eta bizitza luzeagoa, orduan eta dieselarekiko hautuaren aldekoak dira adituak. Auto horrekin bost urte baino gehiago 'bizitzeko' asmoa badugu, seguru asko diesela izango da aukera hobea: beti ere, urtean 20.000 km baino gehiago egiten baditugu.*

*Mantenua eta aseguruari dagokionean, erosten dugun kotxearen araberakoa izango da. Marka bakoitzak gomendio desberdinak izaten ditu, baina horiek ere ondo aztertzea komeni da. Aseguruari dagokionean, arrisku orotarako aseguruak merezi du egitea lehenengo bost urteetan; hortik aurrera, aukera gero eta zabalagoa dago. Hainbeste aukeren aurrean, ondo begiratzea komeni da.*



*Autoa erosteko une egokia bizi dugu gaur egun. Espainiako gobernuak PIVE plana berritu zuen, auto zaharrak berritzeko asmoarekin. Horri salmenta kopurua jaitsi dela kontuan eukita, prezio oso lehiakorrak daude gaur egun merkatuan. Aukera aprobetxatzeko modukoa da.*




ACITAIN, S. A.
Zerbitzugunea
AVIA
24 ORDUKO ZERBITZUA
Gasoleoen zuzeneko banaketa
Garbiketa automatikoa eta presioarekin
Tel. 943 12 16 62 Tel./Faxa. 943 12 18 62 acitain@gmail.com

VALDI
TAILER MEKANIKOAK
Autoen konponketa orokorra.
Injekzio mekaniko eta elektronikoa.
Aire egokitua.
Injekzio elektronikoa gasoila.
Alarmak, errobera aldaketak,
motorrendako erroberak…
Barakaldo 19, behea
Tel. 943 12 73 98
20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Talleres VALDI

HOGEI S.A
BITTOR SARASKETA, 7
MATXARIA, 3
Tel. 943 12 10 00
– Mekanika
– Karrozeria
– Neumatikoak
– 2. eskuko autoak
Marka guztiak konpontzen ditugu
Eskatu aurrekontua
KONTZESIONARIO OFIZIALA

ZURICH
Lejardi S.L Aseguru Agentzia
Tel 943201149 Plaza Barria 8 Eibar

Tailer ad profesionalak

LAGUNMOBIL
CARROCERIAS
Telefonoa 943 74 44 30 Faxa 943 74 44 36
Olaso Poligonoa (ELGOIBAR)
Lantalde profesionala
Ardura handiz egindako konponketak
1.000 m² instalazioetan


# Kalea jaietarako eszenatoki aparta

SANJUANETAN JAIA KALERA ATERATZEKO AUKERA EZINHOBEA ESKAINTZEN DUTE KALE-IKUSKIZUNEK eta, horrekin jakitun, ia egunero antzezlanen batekin gozatzeko moduan izango gara. **Gaur bertan Markeliñek "Zoozoom" familia guztiari zuzendutako ikuskizuna** eskainiko du 19.00etan Untzagan. Markeliñekoek ikuskizunaz gozatzeko beste modu bat proposatu nahi digute, *"partaidea, dibertigarria, interaktiboa, harrigarria. Material xumeak erabilita, eskuz eraikitako animaliekin osatutako parke zoologiko bitxia sortuko dugu. Partaideak erraz, azkar eta irudimenez beterik, jirafa, elefante, karramarro, dinosauro… bihurtuko dira".*



*Markeliñek "Zoozoom" ikuskizuna eskainiko du gaur 19.00etan Untzagan.*

**Domekan, berriz, 19.00etan hasiko da Untzagan "Txantxariak" ikuskizuna. Urtxintxa eskolakoak musika eta jolasa uztartzen** dituen eskaintzarekin etorriko zaizkigu: *"Txantxariak familiei zuzendutako jolas dinamizazio musikatua da. Musikaria eta Urtxintxako dinamizatzaile bat izango dira oholtza gainean, abestu, jolasen azalpena eman eta jolasaz gozatzen laguntzeko".*



*Trapu Zaharrekoek astelehenean aktore biren istorioa kontatuko digute.*

**Astelehenean Trapu Zaharra taldearen txanda izango da (hau ere 19.00etan Untzagan)**, "Vive soñando" ("Ametsetan bizi") kale antzezkizunarekin. Lan honetan aspaldidaniko aktore biren istorioa kontatuko digute: *"Egoerak behartuta kalera irten beharko dira eurak promoziorako eta, batez ere, euren lana ezagutzera emango duen errepresentante baten bila".*

Eta jaiak agurtu aurretik, **Patxin eta Potxin-ek umeentzat apropos pentsatutako "Txangoa" lana aurkeztuko dute (martitzenean 19.00etan, Untzagan).** Lagun biek txangoa antolatu dute eta ikusleak bertan parte hartzera gonbidatuko dituzte, baina argi ibili beharko dute, ezustekoak bata bestearen atzetik agertuko dira-eta.







# Ondo pasa Sanjuanetan!!


GURE LEKU
Isasi, 3
20600 EIBAR
☎ 943 20 71 89

CAFETERIA LEO
Goizeko 08.00etatik zabalik
PINTXOETAN ESPEZIALISTAK GARA!
Calbeton, 26 943 20 70 33

943 20 61 43
bar aldatz
ALDATZ taberna
Martxa nahi baduzu... Zatoz! Zure zain gaude
San Juan, 3

Taberna - Snack
POZKARI
Pintxo beroetan eta hotzetan espezialistak
J. Etxeberria 11
EIBAR
☎ 943 70 20 37

ONDO PASA JAIXAK
GIRORIK ONENEAN
EZ DOK
EIBAR PUB
Tel. 943 20 11 89
Toribio Etxebarria, 18

Goizeko 07.30etatik zabalik
ondo pasa Sanjuanak eta Sanpedroak!!!
bar manuel
(JUANITO)
Urkizu, 5 943 12 16 57

Kili Kili
☎ 943 20 24 01
- Gosariak
- Plater konbinatuak
- Eguneko menua
Egunero 07.00etan zabaltzen dugu

ISASI, 9
LA TABERNA DE LUIS
943-201537

TUNEL-PE bar
Plater konbinatuak
Pintxoak
Ogitartekoak
San Juan 3
☎ 943 700 641

Plater konbinatuak, razioak, kazuelatxoak, afariak eta bazkariak enkarguz
EGUNERO eguneko platerrak
T. Etxebarria 16
Tel. 943 82 13 41
Birjiñape



*Norman 2007ko amaieran sortu zen, Kepa Arakistain (The Gominols, Skandalu Publiku), Alex Ariznabarreta eta Gorka Bocos (Electric Dolls) eta Beñat Narbaiza (Dominististikum) Legarreko entsegu lokaletan bat egin eta proiektu berriari ekin ziotenean. 2009an Danbaka lehiaketako finalera ailegatu eta Bilbo Hiria Pop-Rock Lehiaketako azken faserako sailkatu ziren eta urte horretan bertan eman zuten argitara "Norman", taldearen lehen lana. "Perkins" bigarren diskoa, aurrekoa bezala, Gaztelupeko Hotsak-en eskutik argitaratu berri dute, barruan CD-a dakarren biniloan. Gaur gauean lan berria zuzenean aurkeztuko dute Untzagan, Willis Drummond taldearekin batera emango duten kontzertuan.*

## ALEX ARIZNABARRETA (NORMAN)

# "Sanjuanetan Eibarren jotzea berezia izango da"

***- Bigarren diskoa aurkeztuko duzue kontzertuan. Nolako lana da?***

Aurreneko diskoarekin konparatuz gero, bateriajolean aldaketa izan dugu, Gorkak taldea laga eta bere ordez Peñalba sartu da eta diskoaren grabazioa azken honekin egin dugu. Beraz, hori litzateke lan bien artean dagoen ezberdintasun nagusia. Hortik kanpora, beharbada lehenengo diskoa hau baino rockeroagoa da, uste dut bigarren lan honetan, doinuari begira barietate handiagoa dagoela.

***- Eta abestietan zertaz diharduzue?***

Diskoan zortzi abesti daude, "sorpresatxo" batekin batera. Berez sorpesa moduko hori Hitchcock-ek zuzendutako "Psicosis" filmaren gure interpretazio berezia da. Beste abesti guztietan zinema beltzeko filmeei buruz egiten dugu berba.



***- Zinea asko gustatzen zaizuela argi dago: taldearen izena Norman Bates "Psicosis" pelikulako pertsonaiari zor diozue eta bigarren diskoaren izenburuan, berriz, pertsonaia horren azalean sartzen den aktoreari, Anthony Perkins-i erreferentzia egiten diozue…***

Bai, Beñat oso zinemazalea da, asko gustatzen zaio zinea, batez ere zine beltza, hortik "Psicosis" pelikularen eragina. Pelikula horrekin hasi eta disko osoa fimeei eskaintzeko ideia berari bururatu zitzaion. Gurekin komentatu eta, proposamena gustatu zitzaigunez, aurrera egitea erabaki genuen eta horrela ekin genion bigarren lan honi.

***- Sanjuanetako lehen kontzertua izango da gaur zuek emango duzuena, gainera zure herrian bertan… horrek ardura berezia sortzen dizu ala, alderantziz, lasaiago joko duzu?***

Pixka bat gauza biak batzen direla uste dut, baina edozein modutan sanjuanetan Eibarren jotzea berezia izango da, horretan ez daukat zalantzarik. Gainera aspaldi ez dugu Eibarren kontzerturik eman, uste dut azkena Ryder tabernan-edo izan zela, pentsa!

***- Lan berria kalean, uda gainean… nolakoak izango dira datozen asteak?***

Ba, gaurko kontzertutik kanpora oraindik ez dugu emanaldirik lotu, baina gure asmoa ahalik eta kontzertu gehien ematea da, lana ezagutzera emateko joteko gogoa daukagu-eta.

EGUREN & ASOCIADOS
ABOGADOS
JOSE VICENTE PEROSANZ
Mª LUISA SOROA
MARTA VALERA
IRATXE URIBEZUBIA
TEL. 943 204 194
FAXA. 943 820 006
Urtzaile, 1 20600 EIBAR egurenyasoc@sarenet.es











*Kataluniatik etorriko zaizkigu Bongo Botrako taldekoak zapatuan, "Revoltosa" diskoa zuzenean aurkezteko kontzertua eskaintzera. "Todos los dias sale el sol (chipiron)" kantak egun batetik bestera ospetsu bihurtu zituen eta orain disko berria ezagutzera ematen dihardute batetik bestera, atseden hartzeko tarte larregi barik.*

## ORIOL GINÉ (BONGO BOTRAKO)

# "Diskoak egunotan bizitzen dihardugun guztia islatu nahi du"

***- Nolakoa da zuen "Revoltosa" diskoa?***

Azaroan aurkeztu genuen lan berria eta harrezkero martxa betean dihardugu diskoa ezagutzera emateko kontzertuak han eta hemen ematen, batez ere Euskal Herrian. Azken aldian sarri sarri joaten dihardugu bertara eta pozik, gainera, joaten garen bakoitzean jendeak benetan harrera beroa egiten digu eta jarraitzaile finak dauzkagu.

***- Aurrekoaren bideari jarraitu diozue ala ezberdina da?***

Aurreko diskoarekin konparatuz gero, baliteke honetan epeltasun gehiago egotea, erritmo lasaiagoak nagusitzen dira orohar. Pausatuagoa izateko arrazoirik bada: abestietako mezua jendearengana erraz ailegatzea nahi dugu. Gaur egun bizitzen dihardugunak denoi eragiten digu, oso une latzak izaten ari dira eta musikak hori islatu behar duela uste dut. Are gehiago, islatzeaz gain musikak moduren batean parte hartu behar duela pentsatzen dut eta, alde horretatik, diskoa ederto datorkio bizi dugun sasoi honi. Egunero ikusten dihardugu nola zapaltzen dizkiguten Giza Eskubideak, arlo guztietan etenbarik ikusten ditugu horren adibideak, unibertsitatean ikastea galarazten digutenean, edo ia ordainduta dagoen etxebizitzatik kalera botatzen gaituztenean…

***- Eta orain arte ikusi duzunaren arabera, jendeak mezu hori egoki jasotzen diharduela uste duzu?***

Baietz uste dut, gizartean zerbait aldatzen hasi dela somatu daiteke. Egia da gauzak aldatzea ez dela lan erraza izango, aldaketa ez da egun batetik bestera etorriko, oso argi dago luze joko duela eta bidean hamaika oztopori aurre egin beharko diogula, baina borrokarekin aurrera egiteko itxaropen puntu bat izatea beharrezkoa da eta horretan ahalegintzen dihardugu.

***- Abestietan horrelako gai sakonei heldu arren, zuen musikak nahiko doinu alaia dauka…***

Borrokaren eta irrifarrari eustearen arteko oreka modukoa bilatzen ahalegintzen gara, bestela gainbehera edozein unetan etortzeko arriskua dago-eta. Egunero horrelako gertakari larrien inguruan ailegatzen zaigun informazio bolumena horren handia izanik, ez litzateke harritzekoa horrek hainbati shock modukoa eragitea.

***- "Todos los dias sale el sol" abestiarekin bapatean ailegatu zitzaizuen fama. Nola moldatu zarete egoera berrira?***

Ba oinak lurrean izateko ahalegin berezia egiten, famak duen arriskuarengatik: goraino igotzen zaituzten bezain azkar beheraino bapatean bota zaitzakete horren atzean lan serioa egon ezean. Horregatik guk gogotik beharrean jarraitu dugu, egunero taula gainean, kontzertuetan gure onena ematen. Bestalde, abestiak idazten ditudan aldetik, benetan pozgarria da edozein tokitara joanda ere nik sortutako abestia entzutea eta jendeak badakiela ikustea.

***- Nola definituko zenuke zuen musika?***

Jende asko harritu egingo litzateke nolako musika entzuten dudan jakingo balu, iturri askotatik edaten dut. Ez zait bereziki interesatzen gure moduko mestizajea egiten dutenen musika, bertatik nekez jasoko dudalako nik zerbait berria sortzeko behar dudana. Gure musika definitzeko "punk parranda" darabilgu, punk berbak borroka, eduki soziala eta bestelakoak adierazten dituelako eta parrandak, berriz, jaiari lotutako erritmoa.




PEPITA OSA OSORO

1. URTEURRENA (2012-VI-19)

*ZURE irribarre eta samurtasuna betirako izango dira GURE ARTEAN.*



Bere aldeko Meza egingo da ekainaren 23an (domeka), eguerdiko 12.00etan, San Andresparrokian.

# Jaiak txosnagunean




**ATZO GOIZEAN EKIN ZIOTEN ERREBALEN TXOSNAK IPINTZEKO BEHARRARI.** Azken urteotan egindakoaren bidetik, aurtengo sanjuanetan ere jai herrikoi eta parte-hartzaileagoak eskatzen dituen Jaixak Herrixak Herrixandakok egitarau zabala prestatzeko beharrean jardun du azken asteotan, jaia txosnagunean bizi nahi duenak aspertzeko aitzakiarik izan ez dezan. **Gaur bertan**, 19.00etan ekingo diote egitarauari, Untzagatik txosnagunera triki-poteoa eginda. Txosnak 20.00ak aldera zabalduko dituzte, elektrotxarangaren musikarekin girotuta.

Egitaraua osatzean berritasun batzuk sartu dituzte: hilaren 23an ospatuko duten **Gazte Egunerako** 500 lagunentzako herri bazkaria antolatu dute, baina aurten Bizimina elkartekoek prestatuko dute bazkarirako paella. Bestalde, nahi duenak txosnagunean bertan emango duten txalaparta ikastaroan parte hartzeko aukera izango du. Eta San Juan eguna **"Mozorro Eguna"** deitu dute, jendea zirkoaren gaiari jarraituta koko-janztera animatzeko asmoz.

**Bihar eguerdian**, berriz, **herri kirolen inguruko norgehiagoka** egin nahi dute, baina horretarako aurretik taldea osatu behar da. Horregatik, jendea parte hartzera animatu nahi dute (zuzenean txosnetara joan eta izena emanda edo, bestela, jaixakherrixakherrixandako@gmail.com helbidera mezua idatzita.



Jaien hasieran erakutsiko dute aurtengo kamiseta irabazlea.

**"Herritarren epaia" presoen aldeko ekimena** herririk herri gauzatzen ibiliko den liburu Ibiltarian "Eibartarron epaia" txertatuko dutela iragarri dute Eibarko Herrirakoek. Horretarako, nahi duenak bere ekarpena egiteko aukera izango du. Ekarpenak orotarikoak izan daitezke: esaldiak, poemak, bertsoak, marrazkiak, talde eta koadrila argazkiak... bakoitzak nahi duenarekin izango du ekimenarekin bat egiteko aukera Herrira-ren txosnan. Ekimenaren arduradunek, bestalde, euren epaia zein izango den aurreratu digute: "Parot doktrina eten, preso gaixoak etxera, dispertsioarekin bukatu. Giza eskubideak, konponbidea, bakea".




Eibarko Herrirak eibartarron epaia txertatuko du liburu ibiltarian.

Izarre
Dieta pertsonalizatuak
– Pisua
– Kolesterola
– Diabetesa
– Dermatitisa
– Jertilidadea
Tel. 685 73 93 55
izarrebelardenda@gmail.com

Rivero
REPARACION de CALZADO Rivero
Isasi, 23 - behea
696 564 813
Oinetakoen konponketa

RPS: 124/10

# aldaz

hortz klinika · clínica dental

San Bartolome, 22 (Elgoibar)
Ola kalea, 10 (Lasarte-Oria)

943 366 377 www.dentalaldaz.com

*"Aldaz Hortz Klinikak eta bertoko profesional-taldeak*
**sanjuan zoriontsuak**
*opa dizkizue"*

LEHENENGO BISITA
+
AHO AZTERKETA
+
AURREKONTUA
**DOAN**




39€ AHO GARBIKETA

149€ ZURITZEA

149€ AHO GARBIKETA + ZURITZEA

Ordainketa %0ko interesekin
36 hilabete arte (aurrekontuaren arabera)*



INPLANTEA
+ HORTZA
egun batean

**Arazoak hortz hagin ordezkoarekin edo hortz bat edo besteren faltarekin?**

SOLUZIO FINKOA:
hortz bat edo gehiago jartzea metal-zeramikan

SOLUZIO FINKOA:
hortz guztiak metal-zeramikan jartzea 6 inplanterekin

SOLUZIO MUGIKORRA:
ordezko hortz hagin osoa erretxinan jartzea 2 inplanterekin gutxienez

# Kultu:

Zuloagatarren, 3
Tel. 943 20 84 39




San Juanetan ere zuen zerbitzura!!







*San Juan Txiki egunean Euskal Jaialdiaren edizio berri bat egingo da Untzagan, 19.30etan hasita. Hainbat herri-kirol modalitate erakusteaz gain, lehia biziaz gozatzeko aukera ere izango da bertan. Antolatzaileen esanetan, gainera, "harrobia badugu eta gazteenei plazan jarduteko aukera ematea" ere badago. Ez da aspertzeko astirik izango!*

# Euskal Jaialdia: ikuskizuna eta lehiakortasuna nahastuz

**ERAKUSTALDIAREKIN HASIKO DA JAIALDIA: *"HARRI EZBERDINEKIN JARDUNGO DUTE*** *harrijasotzaileek; eta aizkolariek, bestalde, esku bakarrarekin, aitzurrarekin eta altueran, bost metrora igota, egingo dute lan".* Jarraian Aretxabaleta, Arabako txapelduna Iparraldeko jokoetan, *"lastoa jaso eta botatzen ibiliko da, ingudearekin batera".* Eta lehiarako hiru hirukoteen arteko norgehiagoka prestatuko dute: hor izango dira, Aretxabaletarekin batera, Ostolaza eta Landarbide harrijasotzaileak eta sei aizkolari (Mendieta, Zubizarreta, Zelai II.a, Ioritz Gisasola eta Ernesto Ezpeleta "Bihurri" eta honen semea Hodei. Azken hau da gazteena -13 urterekin- eta Ioritzek 16 ditu. Aizkoran, txingak eroaten eta korrika jardungo dute irabazlea zein izango den bila. *"Jaialdiak ordu eta laurden bueltan iraungo du".*

## Arraten ere garaile

Bihurri aurten ere garaile izan zen San Isidro egunean egiten den jaialdian: Atutxarekin batera, 10 segundoko aldea atera zioten Larretxea-Telletxea bikoteari, Mujika eta Zubizarreta atzerago geratu ziren bitartean. Zortzina korteko lana 28 minututan amaitu zuten irabazleek, ikuskizuna emanda zaletuen aurrean.



*Bihotz Bizi bihotzetik operatutako Gipuzkoako elkarteak Urrezko Bihotza sariak banatu ditu. Azken edizioan, Realaren Fundazioari (Aperribay presidentea argazkian) eta Bihurriri eman die sari hori.*

Izadi
LORADENDA
– Lora eta landare natural eta lehorrak
– Ezkontzetarako lorak
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM

Siglo XXI
Glamour art
ILEAPAINDEGIA
943 257438
Julian Etxeberria, 20
Glamourra prezio onean

Zabala Comercial
OSTALARITZA ARTIKULUEN SALMENTA ETA MUNTAIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA KONPONKETA
HOSTELSHOP
Jose Antonio Gisasola, 6 · ac
Tel/Fax. 943 20 88 57
comercialzabala@euskaltel.net

BIDAIA PERTSONALIZATUAK
bagoaz bidaiak
Gure gidariekin
Prezio lehiakorrak
Gure produktu berezienak:
Venezuela, Costa Rica eta India
Azken aldian:
Estatu Batuak, Kubarekin nahastuta
Matienan gaude
Eibartik 10 minutura (autopistan Abadiñoko irteera)
94 465 75 77
www.bagoaz.com

# Sanpedruak Karmen kaleko parkia hartuko dabe

**KARMEN KALEKO PARKIAK JARRAITTUKO DAU IZATEN SAN PEDRO JAIXETAKO GUNE GARRANTZITSUENA.** Bai bezperan eta bai egunian bertan, parke horretan egingo dira aktibidade gehixenak. Holan, 28xan, eguerdiko toka eta igel-toka txapelketiari, arratsaldeko 17.00etatik aurrerako programaziñua izango da. Umiak izango dira egun horretako protagonista nagusiñak: txokolate-janarekin hasi eta hainbat jokotan parte hartzeko aukeria izango dabe, tartian zaku-lasterketak, lapikuak apurtzen etabar. Jardunari amaieria emoteko, Gorriti bere abere txikixekin izango da, gaztetxuenen gozamenerako.



*Kaleetan Kantuz-ekuak 20.00ak bueltan abestuko dabe, iaz egin zeben moduan.* LEIRE ITURBE



*San Pedro egunian piskolabisa egongo da 13.00an.* LEIRE ITURBE

### San Pedro eguna

Santuaren eguneko programaziñua aproposagua izango da helduendako. Karmengo parrokixan egingo dan eguerdiko mezan, Koru Gaztiak abestuko dau. Handik urtenda, bezperan tokan eta igel-tokan irabazliak izandakuak sarixa jasoko dabe eta piskolabisa egongo da. Eta, 19.00etatik aurrera, musikia eta dantzak hartuko dabe protagonismua: Nathali eta Sebastian bikotiak emongo detsa hasieria espazio horreri eta, jarraixan, Kaleetan Kantuz-ekuen emonaldixa izango da, askok dakiguzen kantuekin girua alaitzeko. 21.30xetan, bestalde, Tukan taldiaren doiñuekin dantzaldixa izango da egun horretan bizitza berezixa izango daben Karmengo parkian.

### San Pedroko konjurua

Urkizu eta Karmen kaletik urrunduta, hurrengo egunian, hillaren 30ian, azken urtiotan errekuperau dan mezia eta konjurua egingo dira, ohikua danez, Akondia basarrixan. Ekitaldixan abadiak zelaixak bedeinkatzen dittu, txingorretik-eta babesteko.










*Eskualdeko manifestazioa Eibarren egin zen astelehenean.* SILBIA H.

## Metalgintzako beharginen protestak

**Astelehen eguerdian eskualde mailako manifestazioa egin zuten** metaleko beharginek LAB, CCOO eta UGT sindikatuek deituta, "Herrialdeko hitzarmenaren alde" zioen pankartaren atzetik. Gauza bera eskatzeko greba eta mobilizazioak egin dira eguaztenean eta baita gaur ere.

## Einer Rodriguezen argazkiak Untzagan



**Aurreko barixakuan inauguratu zuten Untzagako jubilatu etxean** Einer Rodriguez Ponceren "Euskal Herriko panoramikoak" argazki erakusketa. Uztailaren 7ra arte ikusgai egongo den erakusketa astelehenetik barixakura 19.15etatik 21.15etara bisitatzeko aukera izango da eta zapatu eta domeketan, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.15etatik 21.15etara.

## Juan Luis Cristobal EAko koordinatzaile aukeratuta

**Eibarko Eusko Alkartasunak egin duen batzarrean**, herri mailako koordinatzailea 2009az geroztik karguan dagoen Juan Luis Cristobal izaten jarraitzea erabaki dute. Batzar berean, horrela banatu dituzte beste ardurak: diruzaina Carmen Apellaniz izango da; idazkaria eta komunikazio arduraduna, Nerea Castro; eta bokalak Iñigo Muñoa, Aitor Iñigo Agirrezaldegi, Jose Larrañaga, Josu Cristobal, Alberto Unamunzaga eta Iñaki Penedo (azken hau Gazte Abertzaleak ordezkatzen).



## Toribio Etxebarriaren bustoa tokiz aldatuta



**Aurreko astean bat baino gehiago harritu zen** Toribio Etxebarriaren bustoa anbulategiko parketik kendu eta metro batzuk aurrerago, San Andres elizara igotzeko eskailera parereraino nola eraman zuten ikustean. Orduan baldosak aldatzen zihardutenez, neurria behin-behinekoa izango ote zen zalantza zuten askok, baina anbulategian Oteizaren "Txopitea eta Pakea" ipini dutela ikusita, aurrerantzean Toribio Etxebarriaren bustoa lorez inguratuta eta berari eskainitako kalearen muturretako batean ikustera ohitzen joan beharko gara.






# Ondo pasa Sanjuanetan!!


Iturri
pintxo eta kazuelatxoak
943 70 05 22

tabernaalbertotaberna
taberna alberto
OGITARTEKOAK
SANDWICH-AK
HANBURGESAK
PINTXOAK
TXANPIAK
Juan Gisasola, 10 Tel. 943 043 000

guridi rugby taberna
EIBAR RUGBY TALDEA
AMSTEL
GORA SANJUANAK!!!

ETOR ZAITEZ EZAGUTZERA!
Akara
943 043782
- GOSARIAK/PINTXOAK
- EGUNEKO MENUA/PLATERAK
- OGITARTEKOAK, HANBURGESAK, SANDWICHAK

Bista Eder, 10
Portalea Jatetxea
"Eguneko Menua"
Afariak asteburuetan
(egunero enkarguz)
Pintxoak
Ogitartekoak
943 20 68 68
IGANDEETAN ITXITA

Errebal, 24
943 70 13 23
Zatoz ondo pasatzera Sanjuanetan ere
TRINKETE
GARAGARDOAK

EIBARKO BATZOKIA
ZATOZ SANJUANETAN:
gosaltzera, bazkaltzera afaltzera...!!!
Razioak
Kazuelitak
Platerak aukeran
Ego Gain, 1
Tfnoa. 943 25 72 80

Gora Sanjuanak!
TXURRUT
Zutik, eserita, barran
hausnartzen, berbetan, abesten,
egunez, gauez, asteburuan, lanegunetan
Gora Txurruteko Gin Tonikak!!!

WOK 999
TEL. 943-121672
jatetxea
Otaola Etorbidea, 3 - 2. solairua (EROSKIren ondoan)
sushi
frijituak
plantxa
txokolatera
ORDUTEGIA:
bazkariak
(12.00-16.30)
afariak
(20.00-24.00)
buffet eskura

## Kezkan izena emateko epea zabalik

**Urteroko moduan, ikasturtea amaitzearekin batera** euskal dantzak Kezka dantza taldekoekin ikasten dihardutenek erakustaldi bikaina eskaini zuten aurreko barixakuan, Dantzari Egunean. Bestalde,2013-2014 ikasturterako matrikulatze epea atzo zabaldu zuten eta izena emateko Portaleko 3. solairura joan beharko da, 18.00etatik 20.00etara (6 urtetik gorakoek eman dezakete izena).



*Koreografia desberdineko hainbat dantzaldi ikusi ahal izan ziren.* Leire Iturbe



## Suhiltzaileak M-30ko grebarekin

**Maiatzaren 30eko greba deialdiarekin bat egin zuten** Azitaingo suhiltzaileek, baina modu berezi eta solidarioan: euren lanbideagatik gutxieneko zerbitzuak beti bete behar dituztenez, ezin izaten dute beste barik beharrera joan barik geratu. Horregatik, grebarekin ados egonda eta deialdiarekin bat egiteko, suhiltzaileek egun horretako soldata dohaintzan ematea erabaki zuten. Azitainen 2.545 euro batu zituzten eta horri Oñati, Ordizia eta Legazpiko parkeetan batutakoa gehitu eta gero, denera 7.094 euro elkartzea lortu zuten. Argazkian ikus daitekeen moduan, dirua Bergarako Elikagai Bankuari eman diote, premia duetenei laguntzeko.

## Gure Esku Dago ekimenaren aurkezpena



**Euskal Herriko hainbat eragile sozialen eskutik sortu** den Gure Esku Dago ekimenaren aurkezpena egingo dute datorren asteko eguaztenean (hilaren 26an) Portaleko areto nagusian, 19.00etan. Ekainaren 8an Irungo Ficoban aurkeztutako ekimena *"zabala eta herritarrek sortua izateko helburuarekin jaio da"* diote sortzaileek eta asmoa erabakitzeko eskubidearen aldeko sare zabal bat sortzea da. Are gehiago, erabakitze eskubidearen alde inoiz egin den mobilizazio handiena sortzeko asmoa azaldu dute, herriz-herri eta sektorez-sektore egindako lanarekin. Ekimenari buruzko informazio gehiago interneten, gureeskudago.net helbidean eskuratu daiteke.







**PEDRO Mª BERGARETXE AGIRREBEÑA**

*2013ko ekainaren 10ean hil zen, 72 urterekin*



**FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA**

gure nahigabean lagundu diguzuen guztioi
eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.

**IRENE URIBE UNDABARRENA**

Ekainaren 17an hil zen



"URAK DAKARRENA URAK DAROA, ZUK EMANDAKOA GUREKIN GERATZEN DA"

***BETI GURE BIHOTZEAN***

***ZURE FAMILIA***



*Blanca Martinezek eta Gorka Errastiik poesia errezitala eskainiko dute.*

## Audiobisualak eta poesia Kulturen eskutik

**Arrate Kultur Elkarteak uztailaren lehen egunetarako** ikus-entzunezkoen emanaldiak eta poesia errezitala antolatu ditu. Lehenengo proiekzioa uztailaren 2an (martitzena) izango da: "llimani, Boliviako izpiak eta hizkiak", Amets Arzallusek eta Txomin Txuekak hogei egun Bolivian eman eta gero sortutako audiobisuala emango dute. Uztailaren 3an Mila Gallastegik eta Asier Aldazabalek "Islandia eta Groenlandia: Belarra, laba eta izotza oinpean" izenburukoa eskainiko dute. Eta uztailaren 4an "Barrura begiratzeko leihoak", euskal presoen inguruko film luze dokumentala emango dute. Egitarauari agur esateko, poesia errezitala eskainiko dute uztailaren 5ean Blanca Martinezek eta Gorka Errastik: Kirmen Uriberen (euskeraz), Miguel Hernandezen (gazteleraz) eta Antonio Machadoren (gazteleraz) testuak errezitatuko dituzte, Naome Souden musikarekin lagunduta. Emanaldi guztiak 22.00etan izango dira, San Andres elizako klaustroan (eguraldi txarra egingo balu, Arrate Kultur Elkartearen lokaletan).

## Liburutegiko lehiaketako sariak banatu dituzte

**Aste honetan banatu dizkiete sariak "Li(buru-hausgarriak)"** Juan San Martin liburutegiak antolatutako lehiaketako irabazleei. Irakurzaletasuna sustatzeko asmoz egindako jardueran parte hartu dutenen artean 184 liburu irakurri dituzte eta sari banaketan parte hartu ahal izateko gutxieneko baldintza 16 umek lortu dute. Horien artean zozketa egin eta gero, bizikleta bi banatu dituzte.



## Merkadilloa T. Etxebarrian

**San Juan jaiak direla-eta, Errebalgo aparkalekuko asteroko azoka** tokiz aldatu dute aste honetan eta hurrengo eguaztenean (ekainaren 26an) ere hala egingo dutela iragarri du Udaleko Zerbitzuetako arduradunek. Beraz, aste honetan egin duten moduan, datorrenean ere Toribio Etxebarria kalean ipiniko dituzte postuak.

















*Bi urrats eman ditu Eibar Foball Taldeak, beharrezkoak biak, behin-betikoari aurre egiteko. Hirugarren honetan 2. B mailako 3. multzoko liderra izango dute aurrez aurre. Bihar arratsaldean, 20.00etan hasita, ETB1-ek zuzenean emango duen kanporaketako lehen partidua jokatuko da Eibarren. Zeresanik ez, zaletuek lepo beteko dute Ipurua, Sanjuanak aprobetxatu eta bikain pasatzeko asmoz.*

# Eibar – L'Hospitalet IGOERAREN BILA

**HELDU DA BENETAKO ORDUA, ZIRT EDO ZART EGITEKOA.** Alcoyano eta Oviedo kaleratu eta gero, Gaizka Garitanok zuzentzen duen taldeak, orain dela urte batzuk egin moduan, L'Hospitalet 2. A mailara igotzeko gogoarekin laga nahiko du. Horretarako, baina, ondo hastea komeni da eta, ahal bada, Ipuruan gol batzuen aldea ateratzea. Aurreko kanporaketa biak kanpoan hasi baditu ere, oraingoan etxean jokatzea dagokio gorri-urdin taldeari; hori gutxi balitz, Katalunia aldean hurrengo asteburuan jokatu beharreko itzulerako partidua zelai artifizialean jokatu beharko dute armaginek eta ohitura falta nabari dezakete.



*Dani Garcia eta Guille Roldan, Oviedoren aurkako gola ospatzen.* RAMON BEITIA

## Eskozia La Brava animatzen

Partidua hasi aurretik, eta giroa berotzeko, Eskozia La Brava peñakoek hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Egitaraua 12.00etan hasiko da, Koskorren hasita egingo den herri-poteoarekin; 15.00etan peña guztiak (Eskozia La Bravarekin, Ibargain, Jotake, Emango Nuke eta Mandiola Laguntzaldea) Arkupe tabernan batuko dira, elkarrekin Hotel Unzaga Plazara joateko. Bazkaldu eta gero, 18.30etan, partidua hasi baino ordu eta erdi lehenago, peña guztiak bilduko dira berriro Untzagan, Txoko tabernaren inguruan, batera zelairako bidea hartzeko. 19.15etan aurreikusi dute Ipuruara sartzea, taldea animatzen hasteko jokalariak berotzen diharduten bitartean. Partidua hasteko bost minuturen faltan tifoa (mosaikoa) egingo da taldea hartzeko.

## Sarrerak agortzen

Ale hau inprentara bidaltzerakoan (eguazten gauean), guztira 3.600 sarrera salduta zeuden, bazkide eta gehiagorrien artean. Aukera badago ere gaur eta bihar goizean ateratzeko, ez da ziurtatzen sarrerak geratuko diren, gaurtik publiko orokorrari saltzen hasiko zaiolako. Azken hauek gehienez jota bost sarrera atera ahal izango dute, prezio hauetan: helduen kasuan, 30 euro; eta umeenean, 15 euro.


**MARGARITA OSA IDIGORAS**

2013ko ekainaren 12an hil zen



Familiaren izenean, eskerrik beroena
gure nahigabean lagundu diguzuen guztioi
eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.





**IÑAKI GALPARSORO GARCIA**

(GADIFOT-eko ARGAZKILARIA)

2013ko ekainaren 6an hil zen



**FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA**
**gure nahigabean lagundu diguzuen guztioi**
**eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.**


Belaustegi Baserria
Sanjuanetako
MENU BEREZIA
JATETXEA
- Aperitiboa: Salmorejoa
- Krabarroka-moussea izokin ketua eta ezamihilu olioarekin
- Txangurro entsalada langostinoekin
- Legatz brotxeta txipiroi tenpuran
- Ahate izter konfitatua gerezi saltsa eta frutu gorrien ozpinarekin
- Idiazabal gazta tarta irasagarrarekin eta txokolate eta laranjazko kanutilloa
- Kafea
Prezioa: 38'50 euro + BEZ (%10) EDARIAK APARTE
Informazioa eta erreserbak:
Tel. 943 74 31 02
www.belaustegi.com
ELGOIBARko
San Miguel
gainean
Portxe-jardineko
jaima arabiarrean
bazkaldu eta
afaltzeko AUKERA


Eibarko Udalak
San Juan eta
San Pedro
jai zoriontsuak
opa dizkizu!



Fernando Fernandez prestatzailea Eskubaloiaren Jaian. Leire Iturbe

# Eibar Eskubaloiaren urteko batzarra

**Eibar Eskubaloi Taldea bere urteroko batzarra egitekoa** zen atzo. Maila guztietan txapeldun edo txapeldunorde izan dira taldeko gazteak: horrela, infantil mutilen Melfun-ek Euskadiko eta Gipuzkoako txapelak irabazi zituen, eta Somos nagusiena estatuko 1. mailako hirugarren postuan sailkatu da ligan eta Gipuzkoako txapelduna izan da ondoren. Azken denboraldian 63 gaztetxo neska-mutil gehiago hasi ziren eskubaloian, taldea haziz doaren seinale. Datorren denboraldian gutxienez bi talde gehiago izango da eta, horrez gero, Eibarko 18 urte arteko gazteen %10 Eibar Eskubaloian dihardu. Klubetik deia egiten da entrenatzaile lanetan laguntzeko prest leudekenak euren izena emateko: eibareskubaloia@gmail.com

**Eskubaloiaren jaiko zozketa berria**

Maiatzean egin zen eskubaloi jaian zozketatutako Port Aventurarako bidaiaren irabazlerik irten ez zenez, bigarren zozketa bat egin da eta oraingo zenbaki saritua 3.910 izan da. Saria jasotzeko epea uztailaren 15ean amaituko da.

# Eibartar bi Udaberriko finaletan



**Narbaizak, Irastorza zaldibiarrari 22-14 irabazi eta gero,** Bergaran jokatuko du bihar finala Zumarragako Izagirreren aurka. Zubizarreta, bestalde, Diez bergararrari 22-18 gailendu zitzaion eta gaur jokatuko du finala Urretxun Ibañezen kontra.

San Juan torneoaren egun handiaren bezperan gaude, bihar goizean horko finalak jokatuko baitira. 10.30etan hasiko den jaialdian lau partidu jokatuko dira: benjaminen artekoa hasteko, alebinen artekoarekin jarraitu eta kaiolaren barruko eta binakako finalekin amaitzeko. Buruz-burukoan, Bengoetxeak Zuazua arrasatearrari egingo dio aurre; eta binaka, Zubizarreta-Txurruka eta Arrizabalaga-Agirresarobe bikoteek neurtuko dituzte indarrak.

# Abasolok erregulartasunari eusten dio



**Debabarreneko txirrindularia Euskaldun Sariaren buru** izaten jarraitzen du: 69 puntu batu ditu dagoeneko eta bigarrenari, Lizarte taldeko Higinio Fernandezi, 17 puntuko aldea ateratzen dio. Borja Abasolok erregulartasun ikaragarria dihardu erakusten eta, domekan jokatutako Baiona-Iruñea nazioarteko proban ere, horren adibide berria eskaini zuen 13. postuan sailkatuz. Mendi ibilbidea izan zuen proba Pierre Cazaux Euskalteleko profesional-ohiak irabazi zuen, profesionaletan ere bidea egindako Mathieu Perget-en aurrean.



Lerro honetatik eskertzia nahi detsagu Orbea Haurreskolari eta, batez be, **AINIZE ETA OHIANARI**, gure alabaren heziketan lehelengoko erreferente izatia. Milla esker egin dozuen lan guztiagaittik.*(E.R.Q.)*



**ESNAOLA ETXANIZ FAMELIXAK** eskertu nahi dau Azkoittiko Eneko “Umore Ona”ren kuadrillak une gogor eta zail hauetan emon deskuen laguntasun eskuzabala. Beti izango zarie gure bihotzetan. Eskerrak baitta be Oberena harategikueri (Josemari, Juanma, Sebas eta Juani) hain modu desinteresatuan jokatuta laguntziagaittik. Bazkarixa hillaren 15ian egin genduan Barakaldo soziedadian


Ander Romarate igeriketa egokituaren selekzioko taldekideekin.

## Eibarko igerilari bi Mundialetan

**Gaur egun Konporta taldearekin lehiatzen den Ander Romarate** eibartarrak bikain amaitu du denboraldia eta, bizkar erako 200 metrotan lortutako Espainiako markarekin (2’40”14), Montrealen jokatuko diren igeriketa egokituaren Mundialetan izango da selekzioarekin. Jakina, ez da Mundialetan jardungo duen gure herriko igerilari bakarra, orain dela hilabete batzuk txartel bera lortu baitzuen Markel Alberdik Bartzelonako Mundialetan parte hartzeko. Lasaia ez, baina uda itxaropentsuaren aurrean daude bi igerilariak!



## Otzaurte-Lizarrusti irteera

**Eibarko Klub Deportiboko mendizaleen 40 laguneko taldeak** Otzaurte eta Lizarrustiren arteko 20 kilometro mendi ibilaldia egin zuen zapatuan. Oraingoan, gainera, eguraldia ere lagun izan zuten. ARGAZKIAN, Jose Ramon Agirre “Marron” Lizarrustiko parketxeko arduradunarekin.



## Muguruza, Lores eta Agirre Tokiorako bidaiaren aurrean

**Nekane Muguruzak eta Eneko Loresek osatutako bikotea** onena izan zen Guadalajaran jokatutako kata modalitateko Espainiako Kopan. Eurekin batera beste hogeita bost bikotek hartu zuten parte kadete mailako lehiaketa horretan, baina eibartarrek borroka guztiak irabazi zituzten eta erraz nagusitu ziren. Atseden pixka bat hartuko dute orain eta uztailaren 5ean Tokiora joango dira, Manu Agirre prestatzailearekin, hobetze teknikoarekin jarraitzeko kurtsoa egiteko.

Laukolan
SOLUCIONES INFORMATICAS
Tel. 943 120 350 Faxa. 943 127 087
Urkizu Pasealekua, 10 (20600 EIBAR)









## telefono jakingarriak

SOS deiak........................112
Pegora.............................010
Udaletxea..........943 70 84 00
Portalea............943 70 84 39
Udaltzaingoa......943 20 15 25
Mankomunitatea 943 70 07 99
Debegesa..........943 82 01 10
KIUB.................943 20 38 43
Epaitegia...........943 03 34 00
Iberdrola...........901 20 20 20
Naturgas...........902 12 34 56
DYA Larrialdiak..943 46 46 22
Gurutze Gorria...943 22 22 22
Mendaro osp......943 03 28 00
Anbulategia.......943 03 25 00
Torrekua...........943 03 26 50
Errepideak.........902 11 20 88
Ertzaintza..........943 53 17 00
Eusko Tren........902 54 32 10
Pesa.................902 10 12 10
Taxiak...............943 20 30 71
........................943 20 13 25
Alkohol.Anon.....629 14 18 74
Al-Anon/Alateen..650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara orduro. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 13.30etara orduro, 15.00, 15.30etatik 20.30etara orduro eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40-etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30-etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45, 13.30 eta 14.45. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00, 17.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR**: Jaisteko: 20 minutu geroago.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara orduro eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara orduro eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50-etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara orduro, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

**EIBAR-LOIU.** Egunero: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunero: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara orduro. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20,47etara orduro. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13-etara orduro, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

## eguraldia (EUSKALMET.NET)




## erakusketak

✔ **Ekainaren 30era arte**

***JOSE LUIS IRIGOIENEN*** "Mendiak eta lainoak" argazki erakusketa. *El Ambigú kafetegian.*

***JOAN PALMER-EN*** "Tristeza" argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*

***PEDRO ARRIOLAREN*** "Berlin" argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*

✔ **Uztailaren 7ra arte**

***EINER RODRIGUEZ PONCEREN*** "Euskal Herriko panoramikak" argazki erakusketa. *Untzagako Jubilatu Etxean*

## lehiaketak

✔ **Ekainaren 22ra arte**

***III. MASKOTA LEHIAKETA.*** *Eguna eta tokia: Uztailaren 6an, El Corte Ingléseko terrazan. Izen-ematea eta informazioa: El Corte Ingléseko animalien sailean.*

### ERREKORTADOREEN JAIALDIA BERTAN BEHERA

Euskara-Kultura batzordeak eguaztenean aditzera emandakoari jarraituta, azken orduko aldaketa egin dute Sanjuanetako jai egitarauan eta bihar (ekainak 22) egitekoa zen errekortadoreen jaialdia bertan behera geratu da.

### OTEIZAREN "TXOPITEA ETA PAKEA" BERRIZ KALEAN

Jorge Oteizak Daniel Txopitea artistaren omenez sortutako "Txopitea eta Pakea" eskultura berriz ere kalean dago. Jatorrizko bere kokalekutik, Coliseo paretik kendu zutenetik Alfa Arten eduki dute, hasierako asmoa Errebalgo beharrak amaituta berriz ere hara bueltan eramatea zelako. Hala ere, Errebalgo proiektua uste baino gehiago atzeratu dela ikusita, astelehen goizean eskultura berriz ere kalean ipini dute, baina beste toki batean: anbulategi parean dagoen parkean hain zuzen ere.



## farmaziak

✔ **barixakua 21**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

✔ **zapatua 22**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

✔ **domeka 23**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)

✔ **astelehena 24**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ *Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)*

✔ **martitzena 25**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ *Ibarrondo (Zeharkalea, 2)*

✔ **eguaztena 26**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ *Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)*

✔ **eguena 27**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ *Alberdi (Zubiaurre, 9)*

✔ **barixakua 28**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ *Cortina (Zubiaurre, 29)*

✔ **zapatua 29**
EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)

✔ **domeka 30**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

✔ **astelehena 1**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

✔ **martitzena 2**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

✔ **eguaztena 3**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

✔ **eguena 4**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)

✔ **barixakua 5**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

# laztanak emoten...

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.**


Zorionak, NAGORE, domekan hamar urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.


Zorionak, ANE Maiora, San Juan Txiki egunian hamar urte egingo dozuz-eta. Zuretako, printzesa, famelixa guztiaren partez.


Zorionak, JONE, domekan bederatzi urte egingo dozuz-eta. Ondo pasau urtebetetzian eta baitta Sanjuanetan be.


Zorionak, LIHER, Txantxa Zelaiko txikito, atzo hiru urte bete zenduazelako. Etxeko guztien partez.


Zorionak, MALEN, bixar bi urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Iratiren partez.


Zorionak, ALAITZ, domekan sei urte beteko dozuz-eta. Patxo potolo bat famelixaren partez.


Zorionak, MAULE, haraiñegun hiru urte edar bete zenduazen-eta, neska haundi. Patxo potolo-potolua famelixaren partez.


Zorionak, JUGATX Elizegi Arriola, hillaren 25ian bederatzi urte egingo dozuz-eta. Famelixaren partez.


Zorionak, JULENE, astelehenian zazpi urte egingo dozuz-eta. Muxu potolo bat aitatxo, amatxo eta Osoitzen partez.


Zorionak, IURGI, bixar bi urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.


Zorionak, IRAIA (hillaren 2xan sei urte bete zenduazen) eta NAROA (bixar bederatzi egingo dozuz-eta). Muxu potolo bat famelixaren partez.


Ongi etorri, IBAI, IRATIren panpintxua, hillaren 6xan gure artera etorri ziñan-eta! Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.

Zorionak, LUKEN (24an lehelengo urtetxua egingo dozulako) eta ANE Arrieta (hillaren 16xan bete zenduazen). Famelixa guztiaren partez.



## hildakoak

- **Jesus Gomez Diaz.** 59 urte. 2013-VI-15.
- **Irene Uribe Undabarrena.** 88 urte. 2013-VI-17.
- **Pedro Garro Eibar.** 81 urte. 2013-VI-18.

## jaiotakoak

- **Karla Cano Martin.** 2013-VI-8.
- **Iñigo Carrion Jurgo.** 2013-VI-10.
- **Rehab Lekhalal.** 2013-VI-12.
- **Paul Del Rio Carracedo.** 2013-VI-13.

## SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | | 3 | | | | 5 | 7 | |
| | | | 7 | | | | | 8 |
| | | 2 | 1 | 8 | | | | |
| 3 | | 8 | | | | 4 | | |
| | | | 3 | 6 | 1 | | | |
| | | 9 | | | | 7 | | 3 |
| | | | | 5 | 4 | 3 | | |
| 5 | | | | | 7 | | | |
| | 6 | 7 | | | | 9 | | 5 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 4 | 2 | 9 | 5 | 1 | 3 | 6 | 7 | 8 |
| 8 | 3 | 6 | 9 | 7 | 4 | 2 | 1 | 5 |
| 5 | 7 | 1 | 8 | 2 | 6 | 9 | 3 | 4 |
| 7 | 8 | 2 | 4 | 9 | 1 | 3 | 5 | 6 |
| 3 | 9 | 4 | 7 | 6 | 5 | 1 | 8 | 2 |
| 6 | 1 | 5 | 3 | 8 | 2 | 7 | 4 | 9 |
| 1 | 6 | 7 | 2 | 5 | 8 | 4 | 9 | 3 |
| 9 | 4 | 8 | 6 | 3 | 7 | 5 | 2 | 1 |
| 2 | 5 | 3 | 1 | 4 | 9 | 8 | 6 | 7 |

AURREKOAREN EMAITZA

# 1. Etxebizitza

## 1.2. Salgai

– Babes Ofizialeko pisua salgai Amañan. 2 logela, 2 komun, trasteroa eta garajea. 70 $m^2$. Tel. 636-458967. Ricardo.
– Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, 2 komun, sukaldea eta trasteroa. Igogailua. Guztiz berriztua eta argitsua. 130 $m^2$. Tel. 626-203838.
– Pisua salgai Errekatxu, 6an. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta 7 $m^2$ko terraza. Kalefakzioa. Altzariekin eta berriztua. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 649-521455.
– Arrate-Biden atikoa salgai. Logela bat. 17 $m^2$ko terraza. Guztira 72 $m^2$. Berria. 225.000 euro. Tel. 647-952677.
– Babes Ofizialeko pisua salgai Soraluzen. 3 logela, trasteroa eta garajea. 80 $m^2$. Tel. 637-321970 eta 635-728510.
– Urkizun logela biko pisua alokagai. Tel. 675-714404.
– Donostian udarako pisua alokagai. Hilabete osorako edo hamabostaldirako. dena kanpora begira. Deitu 18.00etatik aurrera. Tel. 688-604025.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 666-784526.
– Elgetan pisua alokagai. 2 logela, 2 komun, sukalde-egongela zabala eta balkoia. 70 $m^2$. Oso egoera onean. Tel. 618-272943.
– Logela alokagai Eibarren. Tel. 686-735525.

## 3.2. Errentan

– Pisua behar da errentan Eibarren. Tel. 657-156254.
– Pisua alokagai Errekatxu, 6an. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta 7 $m^2$ko terraza. Kalefakzioa. Altzariekin eta berriztua. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 649-521455.

# 3. Lokalak

## 3.1. Salgai

– Martxan dagoen janari denda traspasatzen dut Elgetan. Tel. 683-630275.

## 3.2. Errentan

– Garajea itxia alokagai Urkizuko dorreetan. Tel. 616-959625.
– Garajea itxia alokagai Asua-errekan. Tel. 616-959625.
– Garaje itxia alokagai Asua-errekan. 90 euro hilean. Tel. 686-224524.
– Aisialdirako lokala alokagai, barrarekin prestatuta. Koadrilendako apropoa (adin nagusikoak). 80 $m^2$. Udal ordenantza berriari egokitua. Tel. 679-425467.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu,15 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**


**1. ETXEBIZITZA**
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
**2. MOTORRA**
2.1. Salgai
**3. LOKALAK**
3.1. Salgai
3.2. Errentan
**4. LANA**
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
**5. IRAKASKUNTZA**
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak
**6. DENETARIK**
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak


# 4. Lana

## 4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 634-887814.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 677-860971.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 605-720298.
– Pedagogiako 3. mailako ikaslea eskaintzen da udan umeak zaintzeko. Tel. 677-591982.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 654-566314.
– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 625-895460. Carmen Maria.
– Emakume euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 606-502567.
– Neska eskaintzen da pegorak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 636-517025.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 685-771734.
– Emakumea eskaintzen da jatetxean, harategian edo hiltegian lan egiteko. Tel. 606-278923 eta 631-315925.
– Neska eskaintzen da etxeak garbitzeko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-054894.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 618-354218.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauez ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 662-252150.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 616-457254.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 652-361252.
– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 648-054046.
– Emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Goi mailako teknikaria Haur Hezkuntzan. Esperientzia. Tel. 660-522271.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 639-611454.
– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 675-765376.
– Neska eskaintzen da lana egiteko. Asteburuak barne. Tel. 682-277198.
– Bi mutil eskaintzen dira altzariak igo eta jaisteko. Furgonetarekin. Tel. 660-213652.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko orduka zein gauez. Tel. 631-385949.
– Gizonezkoa eskaintzen da txofer jarduteko: karnet guztiak. Disponibilitate osoa. Tel. 626-666977.
– Neska eskaintzen da etxeak edo pegorak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 602-022174.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 690-783065.
– Neska eskaintzen da goizez nagusiak edo umeak zaintzeko. Asteburuak barne. Tel. 699-232823.
– Emakumea eskaintzen da interna zein orduka lan egiteko. Tel. 627-768686.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Interna edo orduka. Tel. 653-075865.
– Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordutegi zabala. Esperientzia. Tel. 671-258740.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Tel. 697-372374.
– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Arduratsua eta esperientziarekin. Tel. 695-719744.
– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko, nagusiak zaintzeko, garbiketetarako eta hoteletan lan egiteko. Tel. 608-474923.
– Neska eskaintzen da garbiketak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Interna edo orduka. Tel. 687-362773.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 602-068313.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 689-436454.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 631-004374.

## 4.2. Langile bila

– Neska euskalduna behar da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
– Emakume eibartarra behar da arratsaldez lau ordutan emakume nagusia zaintzeko. Tel. 635-203283.
– Neska euskalduna behar da 4 urteko umea zaintzeko udan. Tel. 658-693882.
– Kamarera behar da jornada osorako Eibarko erdialdeko kafetegi batean. Bidali curriculuma: tre@euskalnet.net.

# 5. Irakaskuntza

## 5.2. Eskaintzak

– Unibertsitarioa eskaintzen da ingeles eta ikasketa-teknika klaseak emateko uztailean eta abuztuan. Esperientzia. Tel. 699-522514.
– Enpresa Zientzietan diplomatuak Ingeles, Matematikak eta Euskara klaseak ematen ditu. Mintzapraktika klaseak, baita ikasturtea gainditzeko ere. Tel. 662-110395.

# 6. Denetarik

## 6.1. Salgai

– Orbea bizikleta salgai. Laranja kolorekoa. 8-10 urteko umearentzako. Tel. 943-127368.
– DBHko 3. mailako eskolako liburuak erosiko nituzke. Tel. 665-707336.
– Irakurtzeko liburuak eta entziklopedia salgai. Tel. 688-686639.
– Narruzko sofa-ohea beltza salgai. 3 plazakoa. Erosoa eta merkea. 280 euro. Tel. 687-326230.
– Bigarren eskuko bizikleta salgai. Trek 750 Multitrak. Urteetan erabili gabe. 50 euro. Tel. 679-326038.

## 6.3. Galdu/Aurkitu

– Umearen betaurrekoak galdu ditut Aldatze eta San Agustin arteko bidean. Quicksilver markakoak. Urdinak, kolore bereko fundaren barruan. Tel. 629-526767.

Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547

# CAPI

## LASER DEPILAZIOA

**30€**
- *Aurpegia*
- *Izterrondoak*
- *Besapeak*
- *Bularra*
- *Sabelaldea ...*

*Hanka osoak + Izterrondoak*
**90€**

## Gorputz tratamenduak

**TEKNIKAK:** Kabitazioa / Radiofrekuentzia / MINCEUR
Laser lipolitikoa / Presoterapia / Elektroestimulazioa

**5 saioko BONOAK / Zona bat: 35 euro saioa**


LEHEN ORAIN LEHEN ORAIN







## Aurpegi tratamenduak

– Mikrodermoabrasioa
– Radiofrekuentzia (zimurrak)
– Mantxak (BERRIA)



## Masajeak

OSTEOPATIA
TEKNIKA METAMORFIKOAK
MASAJE TERAPEUTIKOAK
REFLEXOLOGIA
MASAJEAK: THAI,
KALIFORNIARRA, BALIKOA






BETILE LUZAPENAK
GEL ATZAZKALAK
IA BETIRAKO
MANIKURA




- Bertoko eta nazioarteko BIDAIAK
- Enpresa eta eskola GARRAIOAK
- TXANGOAK

Eibarbus
autobusak

bista eder

clinica dental - hortz klinika

# Asko dira
## gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



innovadental clinicas

**20.000tik GORA PAZIENTE** ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko arreta jaso dezazun





**Createch Medical-en**
etorkizuna gerturatzen dizugu,
inplanteetan egiturak egiten espezializatutako
gure enpresa berritzailearekin

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN

bista eder
clinica dental - hortz klinika

Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**
mail: bistaeder@innovadentalclinicas.com
www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN

innovadental [ Azpeitia clinica dental - hortz klinika ]

José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**
mail: innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com
www.innovadentalclinicas.com